

MAITE DITUT ANIMALIAK ETA LANDAREAK

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

2. ATAZAK

- A. ataza: Zer dakigu beste izaki bizidunei buruz?
- B. ataza: Animaliak ezagutzen
- C. ataza: Landatu zuhaitz bat

3. MATERIAL OSAGARRIA

- A. Hauek bai buruhaustek!
- B. Besterik nahi?

4. ERANSKINAK

- I. Animaliak zaintzen. Euskadi Irratia. DB 280
- II. Denok bizi gara hemen. ETB.
- III. Paisajeak. Euskadi Irratia. DB 270
- IV. Katua I. Animaliak CD-ROMa. Elhuyar.
- V. Katua II. Animaliak CD-ROMa. Elhuyar
- VI. Katuaren ginean. Animaliak CD-ROMa. Elhuyar
- VII. Ipuinak kontatzen. Euskadi Irratia. DB 73
- VIII. Alegia zaharrak. Animaliak CD-ROMa. Elhuyar
- IX. Alegia zaharrak. Animaliak CD-ROMa. Elhuyar
- X. Zuhaitz baten historia. Elkar
- XI. On Mielen aholkuak. Ipuina

BIDEO-PASARTEAK		
<u>A ataza</u> 1.- 00.32.50 2.- 00.38.15 3.- 00.41.20	<u>B ataza</u> 4.- 00.46.08 5.- 00.46.45 6.- 00.47.36	<u>Material osagarria (B)</u> 7.- 00.48.23

OHARRA: denbora horiek erreferentziazkoak dira.

1. SARRERA

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Haurrak ez dira nekatzen beren ingurura begiratu eta gauza berriak aurkitzen. Bestalde, garrantzitsua da ulertzen joatea zein den gizakiaren tokia lurraren ekosistema konplexuan. Horrekin batera, zientziaren kultura eta garrantzia zein den ohartzen hasiko da, gizarte modernoaren zutabe nagusia baita.

Baina zientzia ez da soilik ezagutza-multzo bat; zientziak badu bere hizkuntza, eta haurrak poliki-poliki ikasiko du gai horiei buruz zehaztasunez jardun behar dela.

Gurasoentzat erronka bikoitza da. Batetik, askotan, geure ezagutzak eguneratu egin behar ditugu, seme-alabei laguntzeko. Izan ere, zenbat gauza aldatu diren eskolan izan ginenetik! Bestetik, euskaraz eskolatuak izan ez bagara, batzuetan "hitzen falta" igarriko dugu.

Unitate honetan, Lehen Hezkuntzako maila guztietan jorratzen den gai baten gainean arituko gara: animaliak eta landareak. Gai horretaz jarduteko baliabide batzuk eskuratuko ditugu, eta, bide batez, natur zientzietan buruzko azalpenak emateko zaindu behar diren hainbat kontu ere landuko ditugu.

Helburua hau da: gurasoak trebatzea, beren seme-alabei azalpen argiagoak emateko, eta funtsezko irizpide batzuk izatea, haurrei beren lanak hobeto egiten laguntzeko.

A atazan animalien eta landareen gaiarekin lotutako oinarritzko hiztegia landuko dugu. Zientziarekin lotutako gaiak hiztegiaren ezagutza ona eskatzen dute. Hitz egokirik gabe ezin azalpen argirik egin.

B atazan animaliez jardungo dugu. Izan ere, haurrek hitzaldi bat prestatu behar dute, taldearen aurrean aurkezteko; horrela, bada, nahiz eta hainbat euskarri erabili beharko dituzten (diagramak, fitxak...), azalpena ahoz egin behar dute. Ataza honetan aztertuko dugu nola egin ahozko azalpen horiek taxuz, zein aholku eman haurrei, nola gidatu azalpenaren prestakuntzan... Bide batez, ANIMALIAK CD-ROMa (ELHUYAR) ezagutu eta landuko dugu.

C atazan landareak eta zuhaitzak izango ditugu hizpide. Foru Aldundiak, zuhaitzaren eguna dela eta, HAZI ZEURE ZUHAITZAREKIN BATERA liburuxka eman zuen argitara. Material horretan zuhaitzen babesarekin zerikusia duten hainbat jarduera proposatzen dira. Unitatearen atal honetan horietako batzuk hartuko ditugu langai, eta bertan eskatzen diren testuak idazteko irizpideak zehazten ahaleginduko gara.

Hauk dira buruhausteak! atazan animaliak eta landareak aitzakia hartzen dituzten hainbat jarduera bildu ditugu. Jarduera horiek ebatzita ikasleek honako langaiak jorratuko dituzte:

- Logika: hipotesiak, ondorioak...
- Neurriak eta unitateak
- Oinarritzko eragiketa matematikoak

Besterik nahi? atazan, azkenik, alegia klasikoak eta animaliak protagonista diren ipuinak izango ditugu lanaren ardatz. Oraingoan, ipuin-kontakteta landuko dugu: nola irakurri ipuinak haurrei, nola kontatu modu adierazkorrean eta baita ipuin bat asmatu ere.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena.



A. ATAZA: ZER DAKIGU BESTE IZAKI BIZIDUNEI BURUZ?

- Ezagutzen dituzten animalien eta landareen izenak zerrendatu eta sailkatu.
- Arrak, emeak eta kumeak izendatzeko ohiko izenak bildu.
- Animalien hotsak izendatzeko hitzak identifikatu.
- Haurrek etxean eduki nahi izaten dituzten animaliak zaintzeko aholkuak entzun eta haurrari animalia horiek etxean ez izateko arrazoiak eman.
- Baserriko animaliak zertarako erabili ohi diren azaldu.
- Haurrentzako bideo batean azaltzen diren animaliak izendatu, eta horietako bat programa baten maskota hautatu.
- Zuhaitz eta landarerik ezagunenak izendatu
- Herriko tokiren baten paisaia aldatzeko proposamenak egin.

MIN/IRAK



B. ATAZA: ANIMALIAK EZAGUTZEN

- Eskolako lanaren helburuen zerrenda antolatu; lanaren eskema aztertu eta moldatzeko proposamenak egin.
- Diagrama osatu animali talde nagusiak izendatzeko hitzak erabiliz (narrasti, ugaztun...) eta haurrek prestatutako hainbat testutan dauden okerrak identifikatu.
- ANIMALIAK CD-ROMaren gidaliburua aztertu, eta identifikatu ikono bakoitzaren esanahia; argitu CD-ROMa erabiltzeko oinarritzko jarraibideak.
- CD-ROMak katuari buruz dakarren informazioa aztertu, eta haurrek egindako hainbat lanetan desegokitasunak identifikatu.
- Bideo-erreportajea entzun, eta eztabaidatu haurrak hartutako oharrak zuzenak diren ala ez.
- Zenbait esaera zaharren esanahia argitu.
- Ahozko azalpena egiteko hainbat irizpide eztabaidatu, haurrei orientabideak emateko.

IRAK/MINT/ENTZ



C. ATAZA: LANDATU ZUHAITZ BAT

- Zuhaitzen aldeko kartel bat egiteko aukerak aztertu.
- Proposamenik egokiena hautatu, esku-orri batean falta diren testu-zatiak osatzeko. Alderatu jatorrizko testuarekin.
- Esku-orriari jarraipena emateko bi proposamen alderatu, eta eztabaidatu zein den egokiena.
- Ipuin baten hasierako lau paragrafoak ordenatu; amaierako proposamen bat egin, eta jatorrizkoarekin alderatu.

IRAK/MINTZ/IDAZ



MATERIAL OSAGARRIA

A. HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

- Logika-joko batzuk egin.
- Neurriekin eta unitate-aldaketekin zerikusia duten buruketak egin.
- Oinarrizko eragiketa matematikoak ebaztea eskatzen duten buruketak egin.

IRAK/MINTZ



MATERIAL OSAGARRIA

B. BESTERIK NAHI!

- Ipuinak kontatzeko moduak alderatu; adituen jarraibideak ulertu eta eztabaidatu.
- Txandaka, ozenki irakurri alegia klasiko batzuen amaierako olerkiak, eta asmatu zein alegiari dagozkion.
- Ipuin baten ilustrazioak emanda, gidoia asmatu, jatorrizko ipuina entzun, eta proposatutako gidoiarekin alderatu.
- Ipuinak asmatzeko hainbat teknikaren jarraibideak ulertu, eta, horiei jarraiki, ipuin laburrak asmatu; alderatu haur batzuek asmatutakoekin.
- Ipuin bat irakurri, eta identifikatu bertan ipuin-kontalari trebea izateko ematen diren aholkuak.

IRAK/MINTZ/ENTZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

- Hurrei orientazioak ematea, animalien eta landareei buruzko azalpenak eta testuak egiteko.
- Animalien eta landareen gaia lantzeko euskarazko hainbat material aurkeztu eta erabiltzea (CD-ROMak, irudi bidezko hiztegiak, eskolako liburuak...)

AZPIGAIK

- Animalien eta landareen sailkapena (A) (B)
- Animalia ezagunen ezaugarriak (B)
- Basoen zaintza eta kontserbazioa (C)
- Ipuin-kontakteta. (MO-2)
- Alegia klasikoak eta animaliak protagonista dituzten ipuinak (MO-2)

HIZTEGIA

- **Multimedia:** ikonoa, jarraibidea, sarrera, informazio osagarria...
- **Animalia eta landare ezagunenak:** katua, zaldia, behorra, behia, zezena, pagoa...
- **Animalia-motak:** ugaztuna, narrastia, intsektua...
- **Basoak:** basozaintza, hondamendia, babes, zaindu...
- **Ipuingintza:** irakurketa ozena, kontakteta, irakurketa adierazgarria, ahotsa, doinua ...
- **Eragiketa matematikoak:** batu, kendu, kenketa, zatiketa, emaitza, ebatzi...
- **Neurriak:** luzera, zabalera, sakonera, metroak, zentimetroak....

ELKARRERAGINA

- Ezagutzen dituzten hitzen bidez zerrenda bateratua egin (A)
- Ikaskideek egindako hiztegi-zerrendan identifikatu tartekatutako adibide "faltsuak" (A)
- Egiaztatu ikaskideek egindako zerrenda zuzena den ala ez (B)
- Ikaskideek egindako hainbat proposamenen artean bat hautatu bozketa bidez (C)
- Aztertu guraso batzuen testigantzak, eta sailkatu (MO-2)
- Informazioa trukatu, CD-ROM bat erabiltzeko jarraibideak argitzeko (B)
- CD-ROMean azaltzen den informazioa aztertu, eta zalantzak argitu (B)
- Kanpaina baterako txartel bat egin, emandako euskarriak erabilia (C)
- Txandaka olerki bat irakurri, eta besteek asma dezatela zein alegiari dagokion (MO-2)
- Hurrei arrazoiak eman, animalia bat etxean ez izateko (A)
- Hurrei argitu zein den baserriko hainbat animalien betekizuna (A)
- Haur batzuek eskolako lan baterako egindako helburuen zerrenda eta aurkibideak aztertu, eta hobetzeko proposamenak egin (B)
- Hurrek idatzitako testuetan hutsak atzeman (B) (C)
- Hurren balizko galdera-zerrendari erantzun (B) (C)
- Hurrek idatzitako testuen artean egokiena hautatu (C)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Azalpen bat entzun, eta arazo bati erantzuna emateko bidea ondorioztatu (A)
- Azalpenei jarriki, antzeko kasu batean jarduteko proposamena egin (A)
- Azalpen bat entzun, eta xehetasunak ongi ulertu diren egiaztatu (B)
- Azalpena entzun, eta zein esaterari dagokion erabaki (B)
- Hainbat testigantza entzun, eta erabaki irizpide jakinetara makurtzen diren edo ez (MO-2)
- Irakasleak irakurritako ipuin bat entzun, eta egiaztatu egindako hipotesiak (MO-2)
- Definizioak irakurri, eta hitzak irudian/diagraman jarri (B)
- Testuak irakurri informazio xehearen bila (B)

- Hainbat testutatik jasotako informazioa antolatu mapa kontzeptual batean (B)
- Hainbat esaldiren artean egokienak hautatu, testu batean txertatzeko (C)
- Testuan egindako okerrak atzeman eta zuzendu, diagrama bat lagun (B)
- Alderatu jatorrizko testua eta haurrak idatzitakoa; hutsak atzeman (B)
- Testu idatzi batean azalpena egiteko erabilitako estrategia identifikatu (A)
- Testuan ezabatutako antolatzaileak eta erreferentziako baliabideak berreskuratu (A)
- Testu batean ematen den informazioa erabili beste helburu baterako (MO-2)

- Iritzia eman eta arrazoitu (A) (B)
- Argibideak eman (B)
- Ahozko azalpen bat egiteko mapa kontzeptuala eta eskema prestatu (B)
- Olerki bat ozenki irakurri (MO-2)
- Ipuin bat kontatu, irudi-sekuentzia bat erabilia (MO-2)

- Aholku-zerrenda bat osatu (A) (B)
- Ezaugarri-zerrenda bat idatzi (B)
- Bi testu idatziren artean hoberena zein den erabaki (C)
- Ipuin bati amaiera asmatu (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- **HIZTEGIA:** Animalien eta landareen izenak (A)
 - Animaliak eta landareen kategoriak (A) (B)
 - Animalien hotsak (A)
 - Animalien inguruko esapideak eta esaerak (B)
- **AZALPENA:**
 - Arrazoiak eman (A)
 - Sailkapena eta banaketa (B)
 - Argibideak eskatzeko galderak (B)
 - Ahozko azalpen argia egiteko aholkuak (B)
- **DESKRIBAPENA**
 - Herriko txoko bat itxuraldatzeko proposamena egin (A)
 - Mapa kontzeptuala egin (B)
 - Informazioa antolatzeko proposamenak egin (B)
- **NARRAZIOA**
 - Testuaren pasarteak ordenatu (C)
 - Ipuinari amaiera eman (C)
 - Ipuina kontatzeko aholkuak eskuratu(MO-2)
 - Irudi-multzo bat euskarri, ipuinaren gidoia pentsatu eta kontatu (MO-2)
- **ARGUDIOA**
 - Kanpaina baterako leloa asmatu (C)
 - Bi testuren artean eraginkorrena bereiztu (C)
 - Hainbaten artean esaldirik egokiena hautatu, testu batean txertatzeko (C)

2. ATAZAK

A ATAZA: ZER DAKIGU BESTE IZAKI BIZIDUNEI BURUZ?

(155')

Helburu orokorrak

- Inguruan ditugun animalia eta landareez oinarritzko ezagutza batzuk hizpide jartzea, haurrekin ere baliatu ahal izateko.

Helburu zehatzak

- Animalia eta landare ezagunen izenak zerrendatzea eta sailkatzea
- Animalia ezagun batzuen sexuaren araberako izenak bereiztea
- Gizakiak hainbat animaliarekin duen harremana zein den argitzea
- Geure inguruko paisaiaren inguruan dugun iritzia argitzea

Zertan den

- Ezagutzen dituzten animalien eta landareen izenak zerrendatu eta sailkatu
- Arrak, emeak eta kumeak izendatzeko ohiko izenak bildu
- Animalien hotsak izendatzeko hitzak identifikatu
- Albaitari baten azalpena entzun, eta zenbait animalia etxean ez izateko arrazoiak pentsatu
- Haurren programa baterako "maskota" bat hautatu
- Geure lorategi eta basoetako zuhaitz batzuen izenak identifikatu zerrenda batean
- Herriko txoko bat itxuraldatzeko proposamen bat egin, paisajista baten azalpenak entzun ostean

PROZEDURA:

1

Atazaurrea (10')

- Ikasleek taldetxotan zerrendatuko dituzte ezagutzen dituzten animalien eta landareen izenak. Batzuetan, ez dute jakingo euskarazko hitza adierazten; horrelakoetan, hiztegia erabil dezatela. Adib.: untxia, ziza, txerria, azeria, balea, haritza...
- Zerrenda bateratua egin.

Ataza: Hitzak sailkatu (10')

- Taldeka jarrita, osatu duten hitzen zerrenda sailkatuko dute. Izenetako batzuk (beste taldekoek proposatutakoak) ez dituzte, akaso, ezagutuko; egin dezatela hipotesiren bat hiztegiara jo gabe.

SAILKAPENA	
- Itsasoko animaliak	- Zomorroak
- Loreak	- Animalia lurtarrak
- Onddoak	- Hegaztiak
- Zuhaitzak	- Etxeko eta baserriko animaliak

Feedbacka (5')

- Proposamenak alderatu, eta izan dituzten zalantzak argitu.

Atazaostea (5')

- Binaka jarrita, batak izendatu dezala aipatutako animalia edota landareren bat eta besteak esan dezala zein izaki-mota den (hegaztia, lorea, onddoa...)

2

Atazaurrea (5')

- Ikasleei eskatu eztabaidatzeko zein sexutakoak ote diren animalia hauek: **marigorringoa, tximeleta, barraskiloa, idia, kapoia, elefantea eta sugea.**

Ataza: Hitzen zerrendak osatu (15')

- Nahi izatera, ariketak bi taldetan banatuta egin daitezke.
- Talde batek sexuaren arabera izen ezberdina duten hainbat animalia ezagunen "familiak" osatuko ditu. Emaizkiezu beharko dituzten hitzak zerrenda batean; tartean hitz faltsuren bat sar dezakezu (familiak osatzeko balio ez duena). Asmatzen ez badute, erabil ditzatela hiztegiak.

Arra	Emea	Kumea
① Aketza, apotea, urdea	Txerrama, urdanga	Txerrikumea
② Aharia, aharikoa	Ardia	Arkumea, axuria, bildotsa
③ Zaldia	Behorra	Moxala, pottoka
④ Zezena	Behia	Zekorra, txahala
⑤ Oilarra	Oiloa	Txita
⑥ Akerra	Ahuntza	Antxumea

- Beste talde batean, emandako hotsak egiten dituzten animaliak bilatuko dituzte; beharrezko badute, jo dezatela hiztegiara. Emaiezu hotsok egiten dituzten animalien zerrenda; tartean animalia "faltsu"ren bat sar dezakezu (beste hots-mota bat egiten duen animalia).

ANIMALIEN HOTSAK	
ORRO	Lehoiaren eta beste zenbait basapiztiaren oihu ozena: "lehoi eta zezenen orroak", "basapiztien orro beldurgarriak" (zubereraz 'astoaren arrantza')
UHURI / ULU	Hontzak-eta egiten duten oihu luzea: "hontzak uhurika". ULU, batez ere, bizkaieraz: "ontzen ulu zolia", "zakur eta otsoen uluak"
MARRU	Hainbat abereren oihuaren izena: "ardi-marruak", "balearen marruak", "behiak marruka hurbildu ziren"
MIAU	Katuaren oihua
ZAUNKA	Zakurraren eta kideko animalien oihua: "zakur-zaunkak entzun", "azeriaren zaunka"
KURRINKA	Zerriak, basurdeak eta kidekoek egiten duten hotsa (Iparraldean: 'marmarra', 'marmarioa')
IRRINTZI	Zaldiaren oihua: "behor-irrintziak", "moxalaren irrintzi larria"
ARRANTZA	Astoaren orroa: "astoa arrantza egiten"
TXORROTXIO	Txoriez mintzatuz, kantu-hotsa
BEE	Ardiaren oihua: "ardien bee negartia". (Iparraldean: 'aida', abelgorriei aurrera egiteko esaten zaiena: "behia, bee!")
MARRAKA	Iparraldean eta Nafarroan ardiaren eta ahuntzen oihua, beea, balaka: "bildotsaren marrakak"
KOKORIKO / KUKURRUKU	Oilarraren oihua edo kantua: "oilarraren kokorikoak entzuten dira", "oilarraren lehen kukurrukuaz jaiki"
KARAKA	Oiloaren oihua, alara: "oilarrak kukurruku, oiloak karaka".

Feedbacka (10')

- Zerrendak trukatu. Saiatu emandako izenak beren tokian jartzen. (Eztabaidatu zein ote den/diren tartekatutako adibide "faltsuak").

Atazaostea

- ANIMALIAK CD-ROMa eskuratuz gero, bertan dagoen "jolas-parkera" jo dezatela eta egin ditzatela familien eta hotsen jolasak.

3

Atazaurrea (5')

- Adieraz dezatela etxean animaliarik duten ala ez, eta hala bada, zergatik.

Ataza: Albaitari baten azalpenak entzun, eta zerrendako bost animaliak etxean ez edukitzeko arrazoiak eman: iguana, sugea, txerria, untxia, dortoka. (15')

- Adieraz dezatela zein iritzi duten etxean ez ohiko animaliak izateari buruz
- Albaitariaren azalpena entzun eta animalia bakoitzari buruz ematen dituen xehetasunak jaso ditzatela (l. eranskina).

Feedbacka (10')

- Adieraz dezatela animalia horietakoren bat etxean izango luketen ala ez. Zein arrazoi emango liekete haurrei, etxean izan ez ditzaten?
- Albaitariak emandako arrazoez gain, beste batzuk adieraz ditzatela.

Atazaostea (5')

- Taldean argitu zergatik izan ohi dituzten hainbat abere baserrietan, eta adieraz dezatela ea zertarako baliatzen dituzten ondorengo animaliak: *txerriak, behiak, oiloak, oilarrak, idiak, astoak, ostrukak, oreinak, ahateak, untxiak, katuak, txakurrak*.

Ataza: Animalien inguruko haurrentzako programa baten maskota hautatu (10')

- Ikasleek bi-hiru aldiz ikusiko dituzte "Denok bizi gara hemen" programaren amaierako irudiak (l. eranskina). Ikusi ahala, egin dezatela animalien zerrenda. Hona hemen ateratzen diren animalia batzuk: *pinpilinpauxa, kangurua, elefantea, foka, tximua, armiarma, arraina, iguana, loroa, panda, txoria, txindurria, balea, hipopotamoa, krokodiloa, marrazoa, tigrea, puma, hartza, gorila...*
- Bakoitzak pentsatuko du bere seme-alabak zein animalia hautatuko lukeen.

Feedbacka (5')

- Denon aurrean azalduko dute, haien ustez, seme-alabak zein animalia hautatuko lukeen, eta zergatik.

4

Atazaurrea (5')

- Taldearen aurrean adieraziko dute etxean nolako landareak dituzten, zergatik gustatzen zaizkien...
- Zuhaitz eta landare batzuen euskarazko eta gaztelaniazko izenak egoki lotzen saia daitezela.

HAINBAT ZUHAITZ ETA LANDARE	
PAGOA	Haya
ASTIGARRA	Arce
ERRAMUA	Laurel
GAZTAINONDOA	Castaño
GOROSTIA	Acebo

SASIA	Zarza
PALMONDOA	Palmera
SAHATSA	Sauce
HARITZA	Roble
LIZARRA	Fresno

Ataza: Herriko txoko bat itxuraldatzeko proposamena egin (25')

- Ikasleek paisajista baten azalpena entzungo dute (III. eranskina). Itxuraldatutako bi tokien ezaugarriak jaso behar dituzte.

EZAUGARRIAK	BEREZITASUNAK
Asteasuko adibidea	
Baratzaren estetika	

- Ondoren, herriko toki bat hautatuko dute eta itxuraldatzeko ideiak zerrendatuko dituzte.
- Taldearen aurrean beren proposamena azalduko dute.

Feedbacka (5')

- Ikaskideek beren iritzia emango dute proposatutako egitasmoen gainean.

Helburu orokorra

- Animaliei buruzko hainbat testu erabilita, ahozko azalpen bat egiteko gidoia prestatzea

Helburu zehatzak

- Eskolako lan baten gidoia gainbegiratzea eta orrazteko proposamenak egitea
- Animalia kategorian nagusiak izendatzeko hiztegia erabiltzea
- ELHUYAR-en ANIMALIAK CD-ROMean dagoen materiala ezagutzea eta erabiltzea
- Haurrek egindako hainbat testutan hutsak atzematea eta zuzentzea
- Ahozko azalpen argi eta zehatza egiteko irizpideak zerrendatzea

Zertan den

- Eskolako lanaren helburuen zerrenda antolatu; lanaren eskema aztertu eta moldatzeko proposamenak egin
- Diagrama osatu animalia talde nagusiak izendatzeko hitzak erabiliz (narrastia, ugaztuna...), eta haurrek prestatutako hainbat testutan dauden desegokitasunak identifikatu
- ANIMALIAK CD-ROMaren gidaliburua aztertu, eta identifikatu ikono bakoitzaren esanahia; argitu CD-ROMa erabiltzeko oinarrizko jarraibideak
- CD-ROMak katuari buruz dakarren informazioa aztertu eta haurrek egindako hainbat lanetan desegokitasunak identifikatu
- Erreportajea entzun eta eztabaidatu haurrak hartutako apunteak zuzenak diren ala ez
- Zenbait esaera zaharren esanahia argitu
- Ahozko azalpena egiteko hainbat irizpide eztabaidatu, haurrei orientabideak emateko

PROZEDURA:**1****Atazaurrea (5')**

- Eskola publiko bateko haur-talde batek eskolako lan baten aurkezpen-orrian txertatutako helburuen zerrenda irakurriko dute. Helburuak modu logikoan ordenatzeko proposamenak egingo dituzte. Denen artean bat adostu behar dute.

ERANTZUNA

(Honako hau da jatorrizko zerrenda; hala ere, badaude zerrenda egiteko beste aukera logiko batzuk ere)

1. Geure gustuko gaia jorratzea
2. Entziklopedietatik eta liburuetatik informazioa bilatzen eta ateratzen ikastea
3. Animaliei buruz gauza gehiago ikastea
4. Hiztegia zabaltzea
5. Letra eta akats ortografikoak zaintzea
6. Lana txukun eta hizki onez egitea
7. Lagunei hitzaldia ondo eta argi adieraztea
8. Gure artean ondo moldatzea

Ataza: Animalien sailkapena osatu diagrama baten laguntzaz (15')

- Arestiko helburuen zerrendarekin batera, lanerako gioi bat proposatu dute ikasleek. Irakasleari ez bide zaio oso egokia iruditu, besteak beste, animalia talde garrantzitsu bat falta delako. Ahalegindu daitezela eskaintzen zaien zerrenda osatzen.
- Lortuko ez balute, eskaini diagrama, taldeka jarrita osa dezaten.

Atazaostea (5')

- Binaka jarri. Talde bakoitzean egindako hautua alderatzeko, joko erraz bat egingo dugu: asmakizunen joko. Batek animalia talde bat pentsatuko du, besteak galderak egingo dizkio eta berak BAI-EZ erantzuko du.

Adibidez: (Intsektuak)

- *Ba al du bizkarrezurrik?*
- Ez*
- Artropodoa al da?*
- Bai*
- Bi pare antena al ditu?*
- Ez*
-

Ataza: Animalien sailkapen orokorra azaltzen duen diagrama bat erabilia egindako hainbat azalpenetan dauden hutsak antzeman eta zuzendu (20')

- Haurrek egindako animalien sailkapena aztertu; berrantolatu modu logikoagoan eta zerrendatu falta diren animalia talde nagusiak.
- Irudia osatu, animalia talde nagusiak izendatzeko hitzak erabilia.

ERANTZUNA:

(Diagraman ezkerretik eskuinera)

Ugaztunak, hegaztiak, arrainak, narrastiak, anfibioak, moluskuak, anelidoak, intsektuak, miriapodoak, krustazeoak, araknidoak

- Haurrek idatzietako testuetan dauden okerrak aurkitu, eta zuzendu. Kontuan izan, badirela akatsak idazkera mailakoak (milioi, balea, saguzarra...) eta kontzeptu mailakoak (hegazti guztiek ez dute hegan egiten, anfibioek ez dute ezkatari...))

Miloi bat animalia espezi ezberdin baino gehiago daude eta era askotara sailka daitezke: neurriaren arabera, ugaltzeko moduaren arabera, elikatzeko moduaren arabera, bizi diren ingurunearen arabera... Baina sailkapen nagusia ornodunen eta ornogabeen artean egiten da. Ornodunen artean handiena balea urdina da, eta txikiak saguzarra eta satitsua dira. Balea urdina ugaztuna da, eta saguzarrak eta satitsuak karraskariak (...)

Ugaztunak amaren sabeletik jaiotzen dira; ugaztun batzuen gorputza ilez estalirik egoten da. Ugaztun guztiek burua, enborra eta gorputz-adarrak dituzte. Batzuek, gainera, buztana dute. Ugaztunen gorputz-adarrak era askotakoak izan daitezke. Adibidez, behiek hanketan apatxak dituzte; saguzarrek hegoak eta izurdeek hegatsak (...)

Hegaztiak animalia erruleak dira; gorputza lumaz estalirik dute. Hegazti ia guztiak hegan mugitzen dira. Asko itsasoan edota lakuetan bizi dira, baina habia egiteko lehorrera joaten dira. lehorreko zein uretako animaliak dira. (...)

Arrainak ornodunak eta erruleak dira, hegaztiak bezala. Gorputza ezkatat estalirik dute, narrastiek bezalaxe. Narrastiekin ezberdintzen dira uretan bizi direlako eta narrastiak ez.

uretako animalia batzuk ugaztunak dira (baleak eta orkak, adibidez). Uretako beste animalia batzuk (ez dira arrainak) bereziak dira eta ez dute ezkatarik, txipiroiek adibidez. (...)

Feedbacka (5')

- Taldeari eman atzemandako hutsen berri. Identifika dezatela diagramaren zein tokitan "galdu" diren testuak idatzi dituzten haurrak.

Gramatika eta diskurtsoa: Sailkapena egiteko antolatzaileak(10')

- Ikasleak binaka jarriko ditugu. Bakoitzak liburuko sailkapen-diagrama erdiaren ardura izango du. Elkarri egokitu zaien atalaren azalpena egingo diote, haurrekin birpasatzen ariko balira bezala.
- Entzuten duenak bi lan izango ditu: azalpena zuzena dela ziurtatzea eta bikotekideak zein testu-antolatzaile erabili dituen jasotzea.

Batetik Bestetik Bestalde Gainera	Lehenik Bigarrenik Hirugarrenik	Batzuk Beste batzuk Besteak ...	Lehenengo taldekoak Bigarren taldekoak Besteak ...	Bai ... bai Direla ... direla Hala ... nola
--	---	--	---	---

2

Atazaurrea (10')

- Adieraz dezatela animalia eta landareei buruzko nolako materialak dituzten etxean: entziklopediak, informazio-liburuak, bideo-sortak (adb.: National Geographic...)

Ataza: ANIMALIAK CD-ROMa erabiltzeko oinarrizko jarraibideak argitu (15')

- Laukotetan jarriko dira. Bakoitzak CD-ROMaren gidaliburuaren fitxa bat hartuko du (Ikaslearen liburuaren eranskinetan dituzte), eta, bertan duen informazioaz baliatuta, erabaki dezala zertarako balio duten ikaslearen liburuan zerrendatutako ikonoak.
- Elkarri eman aurkitutakoaren berri.

ERANTZUNA

IKONOA	ESANAHIA
IGELA	Fitxa batetik bestera jauzi egiteko
KATUA	Programatik ateratzeko
ELEFANTE-ZIGILUA	Animalia-taldeetara joateko
ITSAS-HONDOA	Uretan bizi diren animalietara joateko
GALDERA-IKURRA DUEN LIBURUA	Lexiko-azalpenak jasotzeko
BELDARRA	Animalien bilaketa alfabetoaren arabera egiteko
SATORRAREN BURUA	Animalien hainbat ezaugarri/jakingarri ezagutzeko
MUNDUKO GLOBOA	Animalien bizilekua munduko mapan kokatzeko
KATUAREN BEGIAK	Bizilekuaren marrazkira joateko
UNTXIA	Animalia-taldeak, familiak eta soinuak lantzeko jokoak baliatzeko

- Emandako haurren galdera-zerrenda aztertu eta erantzunak argitu, norberak duen informazioa erabilita.

GALDERA	ERANTZUNA
Zer egin behar dut behiaren fitxa aurkitzeko?	Beldarrean B sakatu eta igela erabili, aurkitu arte
Argitu al dezaket zer den "eraldaketaren prozesua"?	Sakatu galdera ikurra duen liburua
Zer egin behar dut joko batetik fitxetara itzultzeko?	Sakatu jokoen ezkeraldera ageri den untxia
Itsasoan bizi diren ugaztunen berri izan nahi badut, nora jo behar dut?	Sakatu animalia-taldearen ikonoa eta joan sailkapen-pantailara. Jarri kurtsorea uraren eta ugaztunen lerroek bat egiten duten puntuan. Jarraian sakatu argazki-kamera.
Nola jakin dezaket zer esan nahi duen "katuak mihia jan" esaerak?	Bere fitxan sakatu satorra eta hurrengo pantailan sakatu esaera hori.
Zertarako da munduko maparen azpian dagoen iparrorratza?	Dena delako animalia-aren bizilekuari buruzko argibideak ematen ditu
Zertarako da sailkapen-pantailan dagoen argazki-kamera?	Animalia-taldeak beren ingurunean (airea, lurra eta ura) kokatzeko

Feedbacka (15')

- Ahal izanez gero, egokiena litzateke ikasleek beren erantzunak baieztatzea CD-ROMa erabilia. Aukerarik izanez gero, oso baliagarria litzateke ordenadoreko proiektorea erabiltzea.

Gramatika: Argibideak eskatu (15')

- Ikasleei honako esaldiok emango zaizkie osatzeko.

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> _____ behiaren fitxa aurkitzeko? Joko batetik fitxetara itzultzeko _____? _____ zertan den, adibidez, "eraldaketaren prozesua"? Itsasoan bizi diren ugaztunen berri izan nahi badut, _____? _____ zer esan nahi duen "Katuak mihia jan" esaerak? _____ sailkapen-pantailan dagoen argazki-kamera? _____ munduko maparen azpian dagoen iparrorratzak? |
|--|

- Ondoren, galdera horiek berridazteko eskatuko diegu, ezagutzen dituzten forma ezberdinak erabilia. Lagungarri ondorengo zerrenda hau emango diegu, eta komuntadura-kontuei eta esaldiaren joskerari errepara diezaietela esango diegu.

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Zer egin behar dut... • Nora jo behar dut... • Nola jakin dezaket... • Badaukat argitzea... • Zertarako da... • Badago jakitea... • Jakin liteke... • Zer egin dezaket... • Zertarako balio du... • Zertarako erabiltzen da... |
|---|

3

Atazaurrea (5')

- Taldean jarrita, zerrenda ditzatela katuari buruzko ahozko azalpen bat egiterakoan aipatuko lituzketen datuak

Ataza: ANIMALIAK CD-ROMean katuari buruz dagoen informazioa aztertu (IV. eranskina), eta horrekin hurrek egindako hainbat lan zuzendu (30')

- Irakurri katuari buruzko fitxan agertzen den testua. Azpimarratu ulertzen edota azaltzen zailak izan daitezkeen hitzak edo pasarteak. Taldean hitz egin.

KATUA:

"Antzinako Egipton katuak gurtzen zituzten. Europara Erdi Aroan iritsi ziren, eta, gaur egun, zakurrarekin batera, gizakiekin bizi den etxeko animalia arruntena da. Felido txiki hau ezin da nahi den bezala hezi, berak nahi duena egiten baitu beti. Zuhaitzetara igotzen oso trebea da, eta goitik bazterretara so geratzea atsegin du. Laztanten denean marrakaz hasten da. Katu emea osoa ondo arduratzen da bere kumeez"

- Irakurri hurrek idatzitako testuak, eta identifikatu aldatu beharreko pasarteak:

(Hurrek idatzitako testua)

Egiptiarrentzat katuak jainkoak ziren. Katua ez zen Europako animalia erdi-arora arte; txakurrarekin batera sartu zen eta gaur egun bi animalia hauek dira arruntenak geure etxeetan. Katuek nahi dutena egiten dute beti; horregatik, ezin dira erraz hezi. Zuhaitzetan egotea gustatzen zaio, baina bazterrean. Laztanten denean miauka hasten da. Katu emeak ondo zaintzen ditu bere kumeak.

- Entzun CD-ROMeko azalpenak (V. eranskina). Erabaki emandako esaldietatik zein diren egia eta zein ez.

ERANTZUNA

- Katu gehienak arrazadunak dira, eta geure etxe edo baserrietan bizi dira. **GEZURRA**
- Arrazadunen bi adibide hauek dira: katu pertsiarrak eta Siamgo katuak. **EGIA**
- Hirietako eta baserrietako teilatuetan beti daude katuak **GEZURRA**
- Katu guztiek dituzte atzaparrak ezkutaturik, eta, horregatik, oso isilak dira. **GEZURRA**
- Katuak ondo moldatzen dira toki argitsueta zein ilunetan; izan ere, begi-niniak asko zabaltzeko eta ixteko ahalmena dute. **EGIA**
- Katuak leku lasaiak aukeratzen ditu, lo egiteko. **EGIA**

- Bi testuetatik jasotako informazioa erabilita, katuaren ezaugarri adierazgarrien zerrenda bat idazteko proposa dakieke.

Feedbacka (5')

- Zerrendak trukatu, eta egiaztatu bertan jasotako guztia zuzena dela.

Atazaostea (15')

- Katuari buruzko fitxa osagarria gainbegiratuko dute, eta, taldean, bertan azaltzen diren esaeren esanahiari buruzko hipotesiak egin ditzatela. Grabazioak entzun (VI. eranskina), eta egiaztatu ditzatela beraien hipotesiak.

Hiztegia: Esaerak eta esapideak (10')

- Ikasleei ondorengo esaera- / esapide-zerrenda hau emango diegu. Bertan animalien izenak ezabatu egin dira. Beraz, saia daitezela hutsuneak betetzen:

1. -----(zezenari)-----adarretik heldu
2. ----(euliaren)-----hegaldia entzun
3. Kanpoan----(uso)-----, etxean----- (otso)-----
4. ----(zakur)-----zaunkariak hozkarik ez
5. --- (xagu)----- eta--- (katua)----- bezala

- Argitu dezatela bakoitzaren esanahia. Horretarako, ANIMALIAK CD-ROMa erabil dezakete.

Ataza: Katuaren inguruko ahozko azalpena egiteko gidoi bat prestatu (10')

- Taldeka jarrita, ikaslearen liburuan duten mapa kontzeptuala osatuko dute. Horretarako, jaso duten informazioa hainbat kategoriatan sailkatu beharko dute.
- Ondoren, azalpenerako gidoi bat prestatu beharko dute.

Feedbacka (10')

- Taldeetako bakoitzak bere proposamena aurkeztuko du.
- Irakur dezatela ikaslearen liburuan dagoen "puxika" ("Korapilorik ez...") eta irizpide horren arabera, eztabaida dezatela ea zein den taldeek egindako proposamenik egokiena.

Atazaostea (10')

- Irakur dezatela ikaslearen liburuan dagoen hurrengo "puxika" ("... eta azalpenak ugari") eta osa dezatela emandako aholkuen zerrenda.
- Talde guztien proposamenak zerrenda bakarrean bilduko ditugu.

NOLA EGIN AHOZKO AZALPEN ARGIA?
<ul style="list-style-type: none">Ez ikasi dena buruz; ez du merezi.Ez irakurri idatzi duzuna hitzez hitz; aspergarria izango da.Uste baduzu hitzen bat ulertzen zaila izan daitekeela.....Ematen dituzun datuak eta informazioak argitzeko.....Nahastu egiten bazara....•••

Helburu orokorra

- Jendearen jokabidea aldaraztea, helburu duten testuen idazkuntza gidatuta

Helburu zehatzak

- Kartel bat egiteko leloa hautatzea
- Esku-orri bat egiteko hainbat aukeraren artean eraginkorrena hautatzea
- Ipuin didaktiko bati amaiera ematea

Zertan den

- Zuhaitzen aldeko kartel bat egiteko aukerak aztertu
- Proposamenik egokiena hautatu, esku-orri batean falta diren testu-zatiak osatzeko. Alderatu jatorrizko testuarekin
- Esku-orriari jarraipena emateko bi proposamen alderatu, eta eztabaidatu zein den egokiena
- Ipuin baten hasierako lau paragrafoak ordenatu; amaierako proposamen bat egin eta jatorrizkoarekin alderatu

PROZEDURA:**1****Atazaurrea (10')**

- Zuhaitzen aldeko kartel edo afixa bat egiterakoan, haurrek hainbat zalantza dituzte. Erantzun diezaietela beraien galderei:

1.- Kartelak ez al dira propaganda egiteko? Irakasleak nik zeren propaganda egitea nahi ote du, bada?
2.- Zer esan daiteke zuhaitzen alde? Azken batean, nork ez ditu zuhaitzak maite?
3.- Kartelean asko idatzi behar al dut? Nondik aterako dut informazioa?
4.- Beharbada, hoberena izango da kartulina dotore bat erostea, eta, gero, plastifikatzea...

- Irakur dezatela *Hazi Zuhaitzarekin Bateragidaliburuko* oharra, eta aldera dezatela beren erantzunekin.

Zuhaitzen adiskideak izateko biderik egokienetako bat da besteei ikusaraztea merezi duela haiek ere zuhaitzen adiskideak izatea.
Besteak beste, kartelak egin ditzakezu, eta, haien bidez, zuhaitzen aldeko mezuak zabaldu: energia gutxiago kontsumitzeko, papera birziklatzeko, mendian zaramarik ez uzteko, zure herrian zuhaitz autoktonoak landatzeko antolatzen diren kanpainetan parte hartzeko...
Izenburu labur eta argi bat asmatu. Letra handiz eta kolore deigarritz idatzi. Aukeran, argazkiren bat ere jar dezakezu. Alde batetik erabilitako paperetan egin kartelak. Leku ageri batean itsatsi, jende asko askok ikus ditzan.

Ataza: Kartela egiteko hainbat irudirentzako lelo bat idatzi (5')

- Banatu emandako sei irudiak ikasleen artean.
- Lelo bat asma dezatela irudi bakoitzarentzat.

Feedbacka (5')

- Taldeek beren erabakien berri emango diete ikaskideei.
- Ikaskideek adieraz dezatela zer iruditu zaien proposatutako kartela.

2

Atazaurrea (5')

- Gainbegira dezatela aztertuko duten esku-orria. Eztabaida dezatela zer den horrekin lortu nahi dena.

Ataza: Testua osatzeko aukeren artean bat aukeratu (15')

- Taldeka jarrita, eztabaida dezatela esku-orria osatzeko zein esaldi iruditzen zaien egokiena kasu bakoitzean.
- Denon proposamenak aldera ditzatela eta saia daitezela proposamen bakarra adosten.

Zuhaitzak ez dira leku batetik bestera ibiltzen, baina bizirik daude.... BIZIRIK? Bai, eta horretaz hitz egingo dugu orri honetan.

- A. Hala ere, ez dute minik sentitzen; horregatik, nahi bezala erabil ditzakegu.
- B. Hain zuzen, zaindu eta babestu egin behar ditugu, geure planetaren etorkizuna ziurtatu nahi badugu.
- C. Izan ere, jende askok ez daki zuhaitzak izaki bizidunak direla.

Zuhaitzek gauza asko ematen dizkigute: fruituak, oxigenoa, zura, erretxina, itzala... Izan ere, zuhaitzak desagertuko balira, gizakiok ezingo ginatke bizi. Bestetik, animalia askoren babesleku eta elikagai dira.

- A. Egia da hirietan, akaso, beste zeregin batzuk dituztela, baina munduko zuhaitz gehienak basoetan bizi dira, eta oso garrantzitsuak dira.
- B. Zoritxarrez, animaliek zuhaitz asko hondatzen dituzte.
- C. Badaezpada ere, gizakiok asmatzen ari gara gauza berriak, zuhaitz gutxiagorekin bizi ahal izateko.

Zaindu egin behar dugu natura, guztion ardura eta erantzukizuna da hori, eta ez nolana hikoia. Zuhaitzen bizitza hobetzeko zerbait egiten dugun bakoitzean, gizadi osoarentzat garrantzi handikoa den zerbait egiten dugu.

- A. Edozein modutan, libre gara nahi dugun bezala jokatzeko.
- B. Horregatik, garrantzitsua da aldatzea geure jokabide kaltegarriak eta oreka zaintzen ahalegintzea.
- C. Beraz, gogoratu: ez moztu zuhaitzik mendian.

Feedbacka (5')

- Jatorrizkoa irakurri, eta aldera dezatela adostu duten proposamenarekin.

Jatorrizko testua

Zuhaitzak ez dira leku batetik bestera ibiltzen, baina bizirik daude... BIZIRIK? Bai, eta horretaz hitz egingo dugu orri hauetan. Zuhaitzak munduko landaririk handienak dira, eta, gainera, haietako batzuk dira planetako izakirik handienak eta zaharrenak. Zuhaitzek gauza asko ematen dizkigute: fruituak, oxigenoa, zura, erretxina, itzala... Izan ere, zuhaitzak desagertuko balira, gizakiok ezin biziko ginateke. Bestetik, animalia askoren babesleku eta elikagai dira. Zuhaitz gehienak basoetan bizi dira, beste landare eta animalia batzuekin batera. Hala ere, haietako batzuk gure hiri eta herrietan hazten dira. Zaindu egin behar dugu natura, guztion ardura eta erantzukizuna da hori, eta ez nolana hikoia. Zuhaitzen bizitza hobetzeko zerbait egiten dugun bakoitzean, gizadi osoarentzat garrantzi handikoa den zerbait egiten dugu. Horregatik, komeni zaigu zerbait gehiago jakitea gure inguruko zuhaitzei buruz, eta, gure ohitura kaltegarriak bazterturik, zuhaitzei bizirik irauten laguntzeko moduan jokatzea.

3

Atazaurrea (10')

- Foru Aldundiaren gidaliburuan haurrak testuan zer azpimarratu duen ikusi. Bere irakaslearen ustez gauza gehiegi azpimarratu ditu. Pentsa dezatela zer gomendatuko lioketen baztertzeko.

HAZI ZEURE ZUHAITZAREKIN BATERA

Ikasi dugu zein garrantzitsuak diren zuhaitzak eta ingurugiroarentzat zein beharrezkoa den gu zuhaitzak zaintzeaz eta ugaritzeaz arduratzea. Horregatik, komenigarria da landatzen ikastea. Ekintza "zaila" da hau, eta heldu baten laguntza beharko duzu. Familiari eskatu ahal diozu laguntza hori. Jarraian azalduko dizkizugun lau urratsak egin beharko dituzu.

1. urratsa: HAZIAK BATZEA

Haritz-ezkur batzuk hartu (urria eta azaroa dira hilabeterik egokienak), zuhaitzetik erori berriak. Leuna eta batera zulorik gabe eduki behar dute azala. Bazter itzazu txikiak edo berdegiak direnak. Oihalezko zaku batean edo kutxa batean sartu eta leku lehor eta fresko batean gorde.

2. urratsa: HAZITEGIAN EREITEA

Honakoa behar duzu:

- 1.- Ibaiko hondarra. Mintegietan edo eraikuntza-materialen biltegietan lortu ahal duzue.
- 2.- Kutxa bat. Arrandegietan erabiltzen dituzten kortxo zurizkoak oso egokiak dira.

Ereiteko:

- 1.- Kupula kendu ezkurrei.
- 2.- 5 cm-ko hondar-geruza bat ipini kutxaren hondoan eta ezkur batzuk jarri hondarraren gainean etzanda.
- 3.- Beste hondar-geruza batez estali ezkurak.
- 4.- Leku epel batean ipini hazitegia. Heze egon behar du, baina putzurik gabe.

3. urratsa: ALDATZEA

Ezkurak ernamuindu egingo dira bizpahiru hilabeteren buruan. Zabaldu, eta hazten hasiko dira sustraiak eta zurtaina. Lekuz aldatzeko sasoia da. Ortua edo lur-sail txiki bat da lekurik egokiena. 20 cm utzi behar duzue haritz batetik bestera.

Orturik ez badaukazue, esne-bricketara aldatu haritzak. Horretarako, humus ugaria daukan lurra bota (mendian edo loradendaren batean lortu ahal duzue). Sustraia lurpean sartu, zurtoina kanpoan utzita. Aire zabalean ipini landareak, Hegoaldera ematen duen balkoi edo leiho batean.

Noizean behin, landareak ureztatu, belar txarrak kendu eta ongarri natural pixka bat bota.

4. urratsa: MENDIRA!

Garrantzi handikoa da ziurtatzea aukeratu duzuen lekua egokia dela haritzak landatzeko. Horretarako, udaletxera edo zentro espezializaturen batera joan horri buruzko informazioa eskatzera. Leku askotan, Zuhaitz eguna ospatzen dute urtero; oso egun egokia izan daiteke zuen zuhaitzak landatzeko.

Haritz bakoitzaren alboan taket bat ipini eta horra lotu haritza —larregi estutu barik—, haizetik babesteko. Noizean behin, zuen zuhaitzak ikustera joan, lokarriak lasaitu, ureztatu eta ongarritu.

Lan ederra egin duzue, harro egoteko modukoa. Lagunei kontatu eta zuhaitz gehiago landatzera animatu.

Ataza: Hurrek egindako bi testu alderatu, eta egokiena aukeratu (10')

- Bi testuak irakurri, eta esan zein dagoen hobeto idatzita, beraien ustez.

A TESTUA	B TESTUA
<p>Bada gauza bat ia denok egin ahal duguna: zuhaitz bat landatu.</p> <p>Bakarrik egiteko, beharbada, zaila izango da baina gurasoen laguntzarekin erraz egin daiteke.</p> <p>Geuk proposatzen dugu haritz bat landatzea. Haritza bertako zuhaitza da eta gero eta eskasagoa.</p> <p>Horretarako ezkurak beharko dituzue. Lehorrak daudenean kutxa batean jarri behar dira lur gainean. Gero pote batean jarri eta leku epel eta heze batean utzi lehen adarrak atera arte.</p> <p>Bizpahiru hilabeteren buruan kanpoko aldera aldatu eta handitzen denean mendira eraman.</p> <p>Ez da hain zaila, ezta? Ea animatzen zareten!</p> <p>Izan zaitezte zuhaitzen lagunak.</p> <p>June eta Gotzon</p>	<p>Zuhaitzen egunean arbola bat landatu beharko zenuke. Arazoa da hilabete batzuk lehenago prestatu behar dela dena eta orain ez dugula denbora nahikoa.</p> <p>Horretarako hainbat gauza egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HAZIAK BATU: Ezkurak jaso behar dira eta lehortu. • HAZTEGIAN EREIN: Hondar gainean jarri kutxa batean. • ALDATU: Bizpahiru hilabeteren buruan ezkurak ernamuindu egingo dira eta lekuz aldatu behar dira. • MENDIRA! Mendiko toki batean jarri. <p>Lan ederra da eta harro egoteko modukoa. Lagunei kontatu eta zuhaitz gehiago landatzera animatu.</p> <p>Ander , Arantza eta Eider</p>

- Arrazoitu dezatela iritzia hori.

ERANTZUNA

<p><u>June eta Gotzonena hobeto dago:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Ez dute agintzen, proposatu baizik. <input type="radio"/> Sarrera txukuna du; aintzat hartzen ditu zailtasunak. <input type="radio"/> Amaieran animatu egiten du jendea gauza bera egitera. <p><u>Ander, Arantza eta Eiderrenak honako hutsune hauek ditu:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Animatu beharrean, proposatuko dutena egin ezina dela esaten dute. <input type="radio"/> Hainbat gauza kopia egin dituzte. <input type="radio"/> Amaierako pasartea ez da ondo ezkontzen aurrekoarekin.
--

Feedbacka (5')

- Laburpen moduan, zerrenda ditzatela atera diren irizpideak, eta irakasleak arbelean jaso ditzala.

4

Atazaurrea (5')

- Adierazi ikasleei zein den ipuinaren izenburua eta non eman zen argitara ("Hazi zeure zuhaitzarekin batera. Zuhaitz Eguna 1998. GFA"). Ikasleek hipotesiak egin ditzatela ipuinaren gaiaren inguruan.

Ataza: Ipuinaren lehen pasarteak ordenatu, eta amaiera emateko proposamen bat egin (35')

- Ordena ditzatela lau pasarteak. Proposamen ezberdinak badaude, eztabaida dezatela, arrazoiak emanaz.

ERANTZUNA (jatorrizko testuaren arabera)

1. paragrafoa: "Xabier sekula ez zen mendira joan aitarekin lan egitera."
2. paragrafoa: "Xabierrek zortzi urte bete zituenean"
3. paragrafoa: "Egun hartan, animalia eta landare asko ikusi zituen Xabierrek"
4. paragrafoa: "Etxera heldu zenean"

- Taldeka, ipuina amaitzeko modua asma dezatela.
- Talde osoaren aurrean aurkez ditzatela asmatu dituzten amaierak. Bozketa egin dezatela bat hautatzeko.

Feedbacka (15')

- Irakasleak jatorrizko ipuinaren amaierako pasartea irakurriko die. Azter dezatela zertan diren antzeko eta zertan ezberdin beraien proposamena eta jatorrizkoa.

JATORRIZKOAREN AZKEN PARAGRAFOA:

"Xabierrek hirurogeita hamaika urte ditu orain. Eguraldi ona dagoenean soilik joaten da gurasoen baserri zaharrera. Hantxe dago, eder eta mardul, hainbat urte lehenago berak landatu zuen haritza. Xabierri izugarri gustatzen zaio aspaldiko lagun zaharren gerizpean eserita egotea. Zurezko aulki batean jesarrita, atsegin handiz entzuten ditu haritzean habia egin duten txorien kantuak. Askotan, biloba Aitziber joaten zaio bisita egitera. Aitziberrek hamaika urte ditu, eta badaki zergatik duen hain gogoko aitonak haritzaren itzalpean egotea. Berak beste haritz bat landatu du, aitonaren haritzeko ezkur bat erabiliz. Baserrira joaten den bakoitzean, bere zuhaitza zenbat hazi den neurtzen du, eta ura zein ongarria botatzen dizkio. Handitzen denean, txorien kantua entzun nahi du bere haritzaren gerizpean, aitonak orain egin duen bezalaxe"

"Hazi zeure zuhaitzarekin batera. Zuhaitz Eguna 98". (26. or.)

3. MATERIAL OSAGARRIA

A. HAUEK BAI BURUHAUSTEAK!

(60')

HELBURUAK

- Logika-joko batzuk egin.
- Neurriekin eta unitate-aldaketekin zerikusia duten buruketak egin.
- Oinarrizko eragiketa matematikoak ebaztea eskatzen duten buruketak egin.

1

Atazaurrea (5')

- Egunkarietako logika-jokoak egiten dituzten galdetu. Norbait oso zalea bada, azaldu dezala zein izan ohi diren zailenak.

Ataza: Logika-joko bat egin (5')

- Taldeka jarri, eta adieraz dezatela zein den erantzuna eta zergatik. Joko honetan, lore bakoitza bere lorontzian eta apal egokian jarri behar da. Zaindu beharreko jarraibideak ez dira, ordea, nolana hikoak.

Zer dago non?

Aldameneko hiru apal hauetan hiru lore daude: apal bakoitzean bat, eta kolore ezberdineko lorontzitan lore bana.

- Lehen apalean dagoen lorea ez da krabelina.
- Lorontzi urdina bigarren apalean dago.
- Krabelina ez dago lorontzi gorrian.
- Arrosa ez dago bigarren apalean, ezta lorontzi gorrian ere.
- Lorontzi gorrian dagoen lorea lehen apalean dago.
- Arrosa hirugarren apalean dago eta ez dago lorontzi urdinean.

	1. apala	2. apala	3. apala	Lorontzi urdina	Lorontzi gorria	Lorontzi horia
Geranioa						
Krabelina						
Arrosa						
Lorontzi urdina						
Lorontzi gorria						
Lorontzi horia						

Oharra: Ikaslearen liburua inprimatzerakoan iratxoren bat edo beste ibili eta gero, arestian duzun taula desitxuratua agertzen zaio ikasleari. Taula hori baliatu nahi izanez gero, esan ikasleei azken hiru lerroak ezabatzeke eta zutabeetan gurutzeak baliatzeko. Bestela, eman taula berria hiru zutabez osatua: loreak, lorontziak eta apalak (ondorengo erantzunean datorrena bezalakoxea)

Feedbacka

- Talde batekoek azal dezatela beraien erantzuna, arrazoiak emanez. Norbait ados ez badago, azal ditzala zergatiak.


ERANTZUNA:

LOREA	LORONTZIA	APALA
GERANIOA	GORRIA	1
ARROSA	HORIA	3
KRABELINA	URDINA	2

Ataza: Logika-joko bat egin (5')

- Banaka jarriko dira lanean. Bide egokia aurkitzen duenak abisua eman dezala; orduan, besteek utzi egingo dute lana.
- Bidea ezagutzen duenak ahoz eman ditzala instrukzioak ea lortzen duten besteek labirintotik ateratzea.

ERANTZUNA:



2

Atazaurrea (5')

- Galdetuko diegu ea badakiten zein diren honako magnitudeak neurtzeko unitateak: distantzia, adina, azkartasuna eta pisua.

Ataza: Hainbat igarkizun ebatzi, eta berridatzi (10')

- Taldeka jarri, eta eztabaida dezatela zein den joko bakoitzaren erantzuna, arrazoiak emanez.

ERANTZUNA:

1	77; 91; 17; 10; 51; 76; 66; 65; 15; 76; 83; 90; 100; 120; 9,18
2	10 minutu gutxiago
3	Zuhaitza m; txindurria mm; urdaiazpikoa g; jarabea ml
4	1,71 m; 2,1 m; 1,7 m; 1,1 m; 0,684 m
5	145 cm; 0,143 dam; 15,8 dm; 1.850 mm
6	1,54 l; 0,14 l; 0,5 l; 2 l

Feedbacka (5')

- Emaizak dituztenean, adieraz dezatela denen aurrean non izan dituzten zailtasunik handienak.

3

Atazaurrea (5')

- Eskatuko diegu gogora ekartzeko zer ziren euskaraz: kenketa, batuketa, kendura, zatitzailea....

Ataza: Eragiketa matematiko batzuk egin (10')

- Binaka jarrita, fruten balioa asmatzeko araketak egin ditzatela.

ERANTZUNA:

FRUTA	A JOKOA	B JOKOA
MARRUBIA	3	6
GEREZIA	2	4
UDAREA	5	2
SAGARRA	4	5

Ataza: Hainbat eragiketa matematiko egin (10')

- Bi taldetan banatuko dira. Talde batek lehen hiru galderak erantzun ditzala, besteak beste hirurak.
- Saia daitezela eragiketak buruz egiten: lehenbizi, pezetatan eta, gero, nahi izanez gero, eurotan (Gogoratu: euro 1 = 166, 386 pta.)

ERANTZUNA:

1	520 pta.	3,13 €
2	860 pta.	5,17 €
3	100 pta.	0,60 €
4	555 pta.	3,34 €
5	315 pta.	1,89 €
6	750 pta.	4,51 €

B. BESTERIK NAHI?

(130)

Helburu orokorrak

- Animaliak protagonista dituzten ipuinak irakurri, kontatu eta asmatzea.

Helburu zehatzak

- Aritu batzuen aholkuak ulertu, eta beraiek aintzat hartzen dituzten ala ez erabaki.
- Ipuin baten irudiak emanda, gidoia asmatzea eta kontatzea.
- Ipuinak asmatzeko hiru prozedura erabilia, ipuinak asmatzea eta kontatzea.

Zertan den

- Ipuinak kontatzeko moduak alderatu; adituen jarraibideak ulertu eta eztabaidatu.
- Txandaka ozenki irakurri hainbat alegia klasikoren amaierako olerkiak, eta asmatu zein alegiari dagozkion.
- Ipuin baten irudiak emanda, gidoia asmatu; jatorrizko ipuina entzun eta proposatutako gidoiarekin alderatu.
- Ipuinak asmatzeko hainbat teknikaren jarraibideak ulertu, eta, horiei jarraiki, ipuin laburrak asmatu; alderatu haur batzuek asmatutakoekin.
- Ipuin bat irakurri, eta identifikatu bertan ematen diren aholkuak ipuin kontalari trebea izateko.

Prozedura:

1

Atazaurrea (5')

- Taldean jarrita, liburuan dituzten aztergaiei buruz hitz egingo dute.

- Zer egiten duzu: ipuinak kontatu, ala irakurri?
- Nolako ipuinak dituzue gustukoak? Eta zeuen hurrek?
- Gustuko al duzu ipuinak asmatzea? Zergatik?
- Zer nahiago dute zeuen seme-alabek: ipuinak ala pasadizoak?

Ataza: Seve Calleja eta Antton Irusta adituen aholkuak irakurri, eta, geure esperientziarekin alderatuta, zerranda osatu (20')

- Ikasleek liburuan duten testu-pasartea irakurri, eta bertan aipatzen diren aholku eta gomendioak aintzat hartu ohi dituzten edo ez adieraziko dute.

ZENBAIT GOMENDIO

1.- Ipuin bat kontatzeko beharrezkoa da kontatzailearen gustukoa izatea; azken finean, ipuina kontatzen goza dezan. Ipuin bati xarmantasunik aurkitzen ez badiogu, ona dela esan badigute ere, alferrik izango azaltzeko ahalegina egitea. Seguruena, hurrei ere ez zaie gustatuko, ez baikara magiarik igortzeko gai izango.

2.- Edozeinek kontatu dezake ipuinen bat, baldin eta alde zehatzetik pixka bat prestatzen badu. Hasteko, ipuina ondo ikasi behar da buruz, eta, ondoren, inguruko hurrekin frogatu egin litezke: arreba txikia, auzokoaren semea... Ongi aterata baldin bada, eta beldurra galdu ondoren, ipuina haur-talde bati kontatzeko moduan egongo zara.

3.- Ipuinak ez dira hitzen bidez bakarrik kontatzen: keinuak, begiak, eskuak... denak balio du kontatzen ari garena adierazkorrago egiteko. Era berean, oso garrantzitsua da ahotsaren doinua. Ipuina bizi

izango bagenu bezala kontatu behar dugu, entzulearen arreta ez galtzeko.

4.- Ipuin-mota ezberdinak kontatu behar dira. Hoberena da denetik pixka bat ematea: ipuin herrikoiak eta modernoak, animalienak eta gizakienak, fantasia handikoak edo errealistagoak, etab. Liburuekin gertatzen den gauza bera gertatzen da, hobeto da idazle desberdin ugari eta estilo desberdinak ezagutzea, genero edo estilo berera mugatzea baino.

Seve Calleja / Antton Irusta

- Hirunaka jarriko dira. Irratiko pasarte entzungo dute ("Ipuinak kontatzen"/VII. eranskina). Bakoitzak arreta berezia eskainiko dio irratsaioko gai bati, eta horren inguruan irratiko gurasoek zer dioten jasoko du:
 - Nolako gaiak izan ohi dituzte beren haurrei kontatzen dizkieten ipuinek?
 - Nolako ezaugarriak izan ohi dituzte ipuinek (irakurriak, laburrak...)?
 - Zer du ipuin-kontaktak?
- Elkarri emango diote horren berri. Era berean, adieraz dezatela beren esperientzia bertsua den edo ez.
- Azkenik, iritzi-trukatze horren emaitza gisa, idatz ditzatela adituen zerrendari eransteko bi edo hiru aholku.

Feedbacka (5')

- Talde bakoitzak bere aholkuen berri eman dezala.
- Denen artean hiru hauta ditzatela, arrazoiak emanez.

ERANTZUNA (Adibide modura)

- Kontuan izan, askotan, haurrei gehiago gustatuko zaizkiela geure txikitako abenturak, pasadizo harrigarriak, bat-bateko asmakizunak... ipuinik landuena baino.
- Inoiz ipuinik asmatzen baduzu, saiatu ez ahazten; segur aski, errepikatze eskatuko dizute.
- Ipuinak zeuretzat ere atsegingarria behar du izan; baina ez lo hartu!

2

Atazaurrea (5')

- Ikasleei alegia bat zer den badakiten galdetuko diegu. Halaber, ezagutzen dituzten alegia klasikoak zerrendatzeko ere eskatuko diegu.

OHARRA: Alegia da ipuina edo elezaharra, gehienetan hitz neurtuetan moldatua, pertsona gisa jokatzaren diren animaliak edo gauzak agertzen direna eta ondorioztat ikasbide edo irakaspen moralak ematen duena. Adb.: "Otsoa eta bildotsaren alegia", "Oxobiren alegia"...

Ataza: Olerki bat irakurri, eta asmatu zein alegiari dagokion (20')

- Taldeka, irakur dezatela zuek emango diezuen olerkia (VIII. Eranskina). Argitu esanahia, ulertu, eta erabaki zein alegia klasikori dagokion (IX. eranskina).
- Taldeak berrantolatu egingo dira. Ikasleak launaka jarriko dira; bakoitzak fitxa ezberdina izango du, hau da, olerki ezberdinak dituztenak elkartuko dira. Nork bere olerkia irakurriko du ozenki, eta besteek asmatu egin beharko dute zein alegiari dagokion.

Atazaostea (5')

- Adieraz dezatela zer iruditzen zaien joko hau beren haurrei egiteko. Jokoaren ondoren, ipuin osoa irakur dezakete, edota Elhuyar-en "Animaliak" CD-ROMean bilatu eta entzun.

3

Atazaurrea (5')

- Irudiak dituzten ipuinekin nola jokatzten duten azaltzeko eskatuko diegu: hitzez hitz irakurrita, ala irudiek iradokitakoari jarraituz.

Ataza: Irudi-multzo bat euskarri hartuta, ipuin bat asmatu eta kontatu (20')

- Taldeka jarrita, irudientzako egokia den gidoia bat proposa dezatela.
- Irakasleak ozenki irakurriko du ipuinari dagokion testua (X. eranskina).
- Binaka jarrita, ipuina kontatuko dute, irudiei jarraiki. Batek kontatu dezala jatorrizkoaren gidoia gogoan izanda; besteak, berriz, taldean asmatutako gidoia erabilita.

Feedbacka (5')

- Adieraz dezatela zer moduz jardun duten eta nola ikusten duten hobeto beren burua: ipuinak hitzez hitz irakurtzen, edo testuak irakurri gabe kontatzen.

4

Atazaurrea (5')

- Adieraz dezatela ipuinak asmatzeko ohiturarik duten ala ez. Nolakoak asmatzen dituzten, zer erabiltzen duten euskarri bezala...

Ataza: Ipuinak asmatu, hiru prozedura ezberdin erabilita (25')

- Ikasleek azalpenak irakurriko dituzte. Erabaki dezatela zein azalpen zein teknikari dagokion.
-

	AZALPENA
Katea narratiboa	
Zergatien ipuinak	
Ipuin polinomikoak	

A.

Ipuin tradizioaletan berezkoak eta ugari ere ugariak izan dira mota honetako ipuinak. Kontakizunotan, antzinako kultura guztiak munduari buruzko azalpenak ematen ahalegindu dira, hurbileko gertaera naturalen zergatiak eman dituzte. (...)

Baina ez daukagu zertan antzinako folklorera jo, mota honetako kontakizun bizi-bizirik aurkezteko. (...) Ikasleak gertaerarik arruntenak ahalik eta harrigarri edo barregarrien kontatzen ahaleginduko dira.

B.

Narrazio bati forma ematen dion galdera-erantzun batzuetatik abiatzen gara: nor zen, non zegoen, zer egiten zuen, zer esan zuen, zer erantzun zuen jendeak, zelan amaitu zen dena... Taldeko lehenengoak lehen itaunari erantzun, eta papera tolestuko du, erantzuna inork irakur ez dezan. Bigarrenak bigarren itaunari erantzun, eta honek ere papera tolestuko du. Eta horrela egingo dute den-denek, itaunak amaitu arte. (...)

Erantzunak irakurri egiten dira, barre egin, eta horixe da dena. Edo, osterantzean, lortutako egoera aztertzen da, bertatik istorio bat ateratzeko.

C.
Kontua hauxe da: han-hor-hemen zabal dauden eta itsu-itsuan aukeratu diren elementu batzuekin kontakizun bat asmatzea, beti ere narratzailearen logika eta irudimena erabiliz.

ERANTZUNA

	AZALPENA
Katea narratiboa	B
Zergatien ipuinak	A
Ipuin polinomikoak	c

- Hiru taldetan banatu, eta talde bakoitzak ipuin bat asmatu beharko du arestiko tekniketako bat erabilita. Horretarako, ikaslearen liburuan duten fitxaz baliatu beharko dute.

KATEA NARRATIBOA

1. Bazen behin ardi txiki bat
2. Perretxikotara zihoan
3. Norbaitek perretxiko bila mendira joango zela esan zuen
4. Ni ez naiz kanpotarra, hemengoa baizik
5. Ezkondu egin ziren eta zoriontsu bizi

ZERGATIEN IPUINA

Zergatik errinozeroek adar bat baino ez dute?

IPUIN POLINOMIKOA

Zaldia
Diamanteak
Erlojua

Feedbacka (10')

- Taldeko kideei kontatu diezaietela asmatutako ipuina. Entzuleek adieraz dezatela gustatu zaien ala ez.

5

- Azkenik, egoki iritzi gero, "On Mielen aholkuak" ipuina irakurri (XI. eranskina). Irakasleak eskainiko dien ipuinean ipuin-kontalari ona izan nahi zuen gazte baten inguruko pasadizoa irakurtzeko aukera izango dute ikasleek.

4. ERANSKINAK

I. ERANSKINA

(1. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 00.32.50)

Animaliak zaintzen

- Irratia Goazen beste animalia batzuk ikustera, ze modan jartzen ari dira. Guk asteak daramatzagu katuari buruz, zakurrei buruz hizketan, baina etxean, egia esan, ia denetarik ikusten da.
- Ana Belen Bai, geroz eta gehiago.
- Irratia Zakurrek eta katuez aparte.
- Ana Belen Hemen, beharbada, ez hainbeste, baina hemen ere hasi dira, adibidez, iguanak edo sugeak.
- Irratia Guk badaukagu lagun bat iguana bat etxean daukana.
- Ana Belen A, bai?
- Irratia Bai, "labinia" izena du iguanak.
- Ana Belen Bada, hauekin gertatzen da, behar adina ez dakigula batzutan, edo behar adina zaintzeko mediorik ez dago; adibidez, zakurrentzat eta katuentzako, ba, ja daude kirolanoak, klinikak, denak horretako preparatuta, baina iguanarekin, adibidez, gaixotzen baldin bada, badaude espezialista batzuk, baina ez dago hain generalizatuta.
- Irratia Joan al zaizu inoiz norbait iguana bat hartuta?
- Ana Belen Bai.
- Irratia Eta zer egiten diezu?
- Ana Belen Ahal duguna, hainbeste medio ez daude. Bada, adibidez, zakur bat anestesiatzeko dauzkagu gure esku askoz gauza gehiago, eta iguanekin jakin dezakegu gehiago edo gutxiago, baina ez gaude hain ondo prestatuta. Eta, gero, beste gauza bat gertatzen dena da etxean daukazazu, iguana bat sartzen duzu terrario baten, eta hura jaten joaten da, hazten joaten da, jaten joaten da, eta hazten joaten da, eta momentu bat iristen da terrarioan sartzen ez dena. Gero, terrario handitzen duzu, eta sugeekin berdin. Egiten dira hazi, eta momentu bat iristen da ondo kabitzen ez direla, eta batzutan, eraso ere egin dezakete, igual, janaria ematerakoan edo, eraso egin dezakete; orduan, manejoa, ez dute arazorik ematen, ez dutelako builarik egiten, handik ez dira ateratzen, etab. Baina hazten direnean eta, "oso handia egin zait, terrarioan ez zait kabitzen ,eta ez dakit zer egin honekin", eta hori izaten da batez ere....
- Irratia Arazorik nagusienetakoa bat.
- Ana Belen Arazoa, bai.
- Irratia Hala ere, oso animalia hotzak dira, ez?

Ana Belen Iguanak ukitzerakoan eta, oso gustura egoten dira.

Irratia A, bai?

Ana Belen Bai, bai, geldi, geldi.

Irratia Eta zer esan nahi du, zakurrak eta katuak azkenean kariño bat berak ere erakusten dizu, ez? Ez dakit zer neurritakoa, baina...

Ana Belen Bai, baina, adibidez, janaria ematera zoazenean...

Irratia Baina suge batek?

Ana Belen Hurbildu egiten dira, ezagutu egiten zaitu, zure eskua den edo beste batena ezagutu egiten dute.

Irratia Sugeak ere bai?

Ana Belen Ez hainbeste, baina, iguanak karinosogoak dira.

Irratia Eta dortokak?

Ana Belen Dortokak ere bai. Dortokak, beno, klase asko izaten dira, baina haiek ere ezagutu egiten dute zeinek janaria ematen dien, zeinek ez, zeinek zaintzen duen, hurbildu egiten dira eta haiek ere igurtziak gustatu egiten zaizkie; bai, bai, geldi-geldi egoten dira igurtzitzen ari zarela. Eta dortoekin, beharbada, ohituago gaude edo errazago izan daiteke zaintzea, ez dute horrela hainbesteko....

Irratia Eta ez dira hainbeste hazten gainera, e?

Ana Belen Ez.

Irratia Edo batzuk bai?

Ana Belen Bai, hazten dira, baina, hainbeste ez. Baina iguana bat oso handia egin daiteke. Gero beste animalia batzuen tartean dauzkagu beti baserrian ikusi izan ohi ditugun animaliak — adibidez, untxiak— etxeetan gero eta gehiago ikusten dira, baita ere, ez dute katu batek bezala...

Irratia Bai, pelutxezkoetara ohituta geunden lehen, beraz orain benetakoak.

Ana Belen Orain benetakoak bai, zakur batek bezala edo katu batek bezala ez du erantzuten, baina beren erantzunak badituzte, ezagutzen zaituzte, etxera joaten zarenean etortzen dira, hurbiltzen dira, janaria hartu, eraman eta, baina untxiak etxean dauzka bi pega txiki. Bat, uzten badituzu etxean suelto, kableak, telebisioko kableak eta hortzakatu egiten dituzte.

Irratia Kableak gustatzen zaizkie.

Ana Belen Kableak gustatzen zaizkie, eta, azkenean, txikitu egiten dituzte. Eta bestea, beraien bandejan egin beharreko gauzak egiten dituzte, baina, batzutan, ahaztu egiten zaie, eta, orduan, beste edozein lekutan egiten dizue. Baina, bi gauza horietaz aparte, ez dute hortzakarik egitek, ez dute gauetan zaunkarik egiten.

Irratia Badituzte bere alde onak ere.

Ana Belen Bai.

Irratia Hala ere, nik honetara iritsi nahi nuen, Ana Belen: txerriak etxean. Ameriketan hasi dira.

Ana Belen Ameriketan bai, hemen oraindik ez, baina txerriak bereziak izaten dira: txiki-txiki batzuk Vietnamitak izaten dira. Eta Ameriketatik etortzen zaigun dena, asike hemendik urte batzuetara pentsatzen dut hona etorriko direla.

Irratia Hasi beharko dugula gela bat jartzen gure txerriarentzat.

Ana Belen Hura paseatzera atera, hura zaindu.

Irratia Paseatzera ateratzen dituzte.

Ana Belen Baita ere.

Irratia Soka jarrita.

Ana Belen Soka jarri, eta jardinetan hantxe.

Irratia Sinpatikoak dira?

Ana Belen Beraien gauzak ere badituzte haiek ere: ezagutzen zaituzte, oso karinosoak izan daitezke. Bai, bai.

Irratia Baina zuri ez zaizu oraindik inor etorri.

Ana Belen Niri oraindik ez.

Irratia Txerria besoetan hartuta.

Ana Belen Txerriak ikusi izan ditut, baina, oraindik, klinikan ez.

Irratia Ukuiluetan eta horrela, orain arte ezagutu izan ditugun tokietan. Beno, gero, beste txerri batzuk ikusiko ditugu, oraintxe kalean daude hauek baina, ez preziso inork paseatzeko. Gajoak.

II. ERANSKINA

(2. bideo-pasartea. ETB: 00.38.15)

Denok bizi gara hemen

Gure lur maitea zaindu behar dugu,
dena garbi izatea helburu baitugu.
Denon artean lortuko dugu erraz,
has gaitezen denok lan horretan, beraz.
Abere guztiak anaiak ditugu,
planetan guztiok bizi behar dugu.

Gure lur maitea zaindu behar dugu,
dena garbi izatea helburu baitugu.
Lurra dugu etxea eder eta bakarra,
zintzoki jokatzera lan eta beharra.
Zaborra eta kea dira jaun eta jabe,
gizaki ugari dira lotsagabe,
tinko jokatzeko ordua heldu da,
Lurra salbatzeko modu bakarra da.

Lurra gure etxea da, denok bizi gara hemen.
Zaintzea da gure eginkizun, guztiok dugu betekizun.
Sekulakoa badirudi ere, ez da horren handi.
Airea batetik bestera, ura bezalaxe.
Errekara zerbait jaurtiz gero, itsasora da helduko,
eta, orduan, noraino ez ote da iritsiko?
Gizaki bizidun guztiek bizi behar dute,
handi edo txiki, eder edo itsusi,
landare edo abere, intsektu edo martsupialio,
arrainak eta hegaztiak, denok nahi dugu bizi.

Gure lur maitea zaindu behar dugu,
dena garbi izatea helburu baitugu.
Lurra dugu etxea eder eta bakarra,
zintzoki jokatzera lan eta beharra.
Lurraren zatitxo besterik ez gara,
landare eta abere guztiak bezala,
ahalegin gaitezen lurraren babesean.
Denok bizi gara mundu... honetan.
Denok bizi gara hemen!

III. ERANSKINA

(3. bideo-pasarte. Euskadi Irratia: 00.41.20)

Paisajeak

Esataria Tira, bada, paisaje-kontuak aipatzen ari gara, baina, praktikan, zuek zer egiten duzue, Iñigo? Zeren badakigu, esate baterako —eta hortik jakin genuen edo izan genuen zure berri—, Asteasuko herri-sarrera edo apaintzen aritu zaretela.

Iñigo Bai.

Esataria Zer egiten duzue? Praktikan, zer egiten duzue?

Iñigo Gure lana da diseinuak egitea, ez? Lorategien diseinuak, parkeen diseinuak eta, baita ere, prest gaude plangintza lurralde antolaketan parte hartzeko, ba, beno, paisajeak duen garrantzia hor nolabait sartuaz, ez? Lan asko eginda gero, esan genezake, estatu-mailan dagoen lan-egoerarekin konparatuz, gure egoera nahiko ona dela, hemen sentsibiltate bat badagoela, eta, batez ere, hiri handiekin baino gehiago herri txikiekin lan asko egiten ari gara, eta oso modu onean, arkitektoekin, baita ere, ari gara kolaboratzen proiektuak parkeak diseinatzeko garaian, eta, orduan, ba, beno, badator guregana bezeroa, eta proiektu bat eskatzen digu. Proiektua, normalean, leku fisiko batean kokatzen da; badago lur sail bat, ba, hori antolatzeko, parke bihurtzeko, lorategi bihurtzeko. Orduan, gu harea hurbiltzen garenean, saiatzen gara nolabait leku horrek dauzkan berezitasunak aztertzen, dituen akatsak edo dituen potentzialak horiek nolabait ateratzen eta, diru gehiegi gastatu gabe eta beti ere mantenua kontuan edukita, saiatzen gara ahalik eta proposamen indartsuena, batzuetan indartsua da, eta orain datorkit burura Asteasuko adibidea, ez? Nolabait oso inpaktantea izan delako Asteasuko herri txikian, ez? Hor sarreran justu egin ditugu hiru lurtontor, nolabait hor nortasun falta bat bazegoelako sarrera horretan, ez? Asteasu gelditzen da herritik alde batera, bidetik alde batera, bideak zatitu egiten du herria bitan eta justu bidegune hori oso pobrea da estetikoki, ez? Ez dauka indarrik, badago etxe bat, egia esan, gehiegi laguntzen ez duena ingurune guzti hori edertzen.

Esataria Pare-parean, gainera.

Iñigo Bai. Orduan, gure helburua izan zen hori estaltzen, baina, baita ere, kompetenzi bat sortzen, eta, horretarako, egin genituen hiru tontor, nahiko inpaktanteak gelditu direnak; esan zidaten lehengoan herrian ia izendatu dituztela tontor horiek eta `satorren monumentuak´ omen dira hemendik aurrera. Eta ni, benetan, oso harro nago, ez zitzaidan bururatu lehenago, baina gustatuko izango litzaidake hori niri...

Esataria Herri-jakinduria, ezta?

Iñigo Bai, bai, bai.

Esataria Ez ahaztu, ez ahaztu Pello Errota ere asteasuarra zela eta sekulako irudimena edo imajinario zuen gizona zen, beraz...

Iñigo Eta, orduan, hori izan da aktuazio oso simple bat: baso txiki bat antolatu ingurune horretan eta, gero, hiru tontor horiek jarri bere landaketekin, zuhaitzekin eta zuhaixkekin.

Esataria Beraz, Iñigo, esan dezagun...

Iñigo, eta orduan, ba, igual, Euskal Herriko lorategi-eredurik ez dago, ez dago horrela eredu garbi bat. "Zein da Euskal Herriko lorategiaren estiloa?" askotan galdetzen didate, eta ni ez nitzake ausartuko, dagoenik, bat badagoenik esatera.

Esataria Euskal Herrian dagoena da paisaia, ezta?

Iñigo Bai, paisai bat, eta hori bai dela garrantzitsua, da abeltzaintzarekin loturik dagoen paisai modu bat, eta hori beste atal bat da, baina, gero, lorategia, Euskal Herriko lorategia nik esango nuke baratzak direla. Baratzak txikiak dira, badute geometria bat, etxerako baratzak dira, ez dira baratza industrialak eta, etxerakoak direnez, ba, orduan, barazki asko aldi berean konbinatzen dira lur-sail txiki batean, eta hor sortzen dira geometria batzuk, kolore batzuk. Gaur egun, gainera, barazki-barietatea aldatzen doaz baititugu letxua gorriak, kizkurrak, haritz-hosto forma duenak eta, orduan, ba, beno, gaur egun baratza antolatu daiteke lorategi-moduan, koloreak konbinatuz, baina, beno, beti-beti egon da geometri bat, baratza bat antolatzeko garaian, eta barazki desberdinak konbinatuaz sortzen da estetika oso-oso bereizgarri bat, eta, benetan, kasu askotan oso, oso, polita dena. Jubilatua, adibidez, horrenbeste denbora daukate, hor aritzeko belarrak kentzen eta baratza jorratzen, eta beraien baratzak egoten dira zoragarri.

IV. ERANSKINA

(4. bideo-pasarte. Entzungaia: 00.46.08)

Katua!

Antzinako Egipton katuak gurtzen zituzten. Europara Erdi Aroan iritsi ziren, eta, gaur egun, zakurrarekin batera, gizakiekin bizi den etxeko animalia arruntena da. Felido txiki hau ezin da nahi den bezala hezi, berak nahi duena egiten baitu beti. Zuhaitzetara igotzeko oso trebea da, eta goitik bazterretara so geratzea atsegin du. Laztantz denean marrakaz hasten da. Katu emea oso ondo arduratzen da bere kumeez

V. ERANSKINA

(5. bideo-pasarte. Entzungaia: 00.46.45)

Katua II

Katu-mota ugari ezagutzen da. Batzuk arrazakoak dira, hala nola katu pertsiarra eta Siameko katua, baina gehienak katu arruntak dira eta hirietako teilatuetan edo baserrietan bizi dira. Katu guztiek, dena den, ezaugarri berdinak dituzte: atzamarrak nonahi sar ditzake eta horrela ez zaizkio higitzen. Katua isil-isilik ibiltzen da, oinen azpian kuxintxoak baititu. Katuaren begiek ere badute berezitasunik; izan ere, argia handi delarik, begi-niniak zirrikitu baten antzera egon arte ixten dira, eta gau beltzean, aldiz, asko handitzen dira argirik gutxiena ere hartzeko moduan. Katua lotan geratzen da luzaz, baina hau ez du egiten oso lasaia den lekuetan baizik.

VI. ERANSKINA

(6. bideo-pasarte. Entzungaia: 00.47.36)

Katuaren gainean

- "*Katuak mihia jan*" esaten da galdera bati erantzuten ez dakigunean edo, besterik gabe, erantzuten ez dugunean.
- "*Katuak kanpoan, arratoiak festa*". Honek esan nahi du nagusia falta denean, morroiak libre sentitzen direla. Hau da, esaterako, klase batetik maisua joaten bada, ikasleak zarata egiten hasten direla.
- "*Gauetz katu guztiak daude ñabar*"; hots, ilun denean, jende eta gauza guztiek elkarren antza dute, antzekoak dirudite.
- "*Katurik ere ez*". Hau esan ohi da leku batean inor ez dagoenean.

VII. ERANSKINA

(7. bideo-pasarte. Euskadi Irratia: 00.48.23)

Ipuinak kontatzen

- Jaime Aintzane, zuk ipuin asko kontatzen al duzu?
- Aintzane Kontatu, kontatu gutxi. Txikiago zirenean bai, orain irakurri asko.
- Jaime orain irakurri egiten dizkiezu?
- Aintzane Bai, gehiago.
- Jaime Zergatik?
- Aintzane Ez dakit.
- Jaime Imajinazio faltagatik edo...
- Aintzane Beharbada, beharbada, beharbada, ez dakit. Alde batetik, hori; gero, bestetik, nahi dut bultzatu irakurketarako hori, eta gustatzen zion, hasten dira irakurtzen, eta "ama, ama irakurri egidazu zuk". Eta, orduan, azkenean, gero eta gehiago irakurtzen diet eta gero eta liburu gehiago ateratzen dizkidate, gero eta meta handiagoa irakurtzeko gauero.
- Jaime Isa eta Ana, zuen etxean zer pasatzen da?
- Isa Ba, denetik, baina normalean zaharrenari ere bai irakurri egiten diogu, eta txikiari kontatu. Irakurri ere bai, baino hark nahiago izaten du ipuina asmatzea edo txikitako kontuak kontatzea nireak edo beste era batekoak. Eta zaharrenari, egia da, ba, ez dakit, berak eskatzen digu irakurtzeko, baina irakurri hor jartzen duena, ia berak nabaritzen du, ari banaiz mozteagatik edo, ez, ez berak nahiago du irakurtzea, ja bereizten dute.
- Jaime Berak esaten dizu. "hara, hartu liburu hau, eta hemendik kontatu hau"?
- Isa Bai, bai.
- Jaime Ja, ja, ja.
- Isa Gero, senarrak Fernandoren, Fernando Amezetarraren pasadizoak eta kontatzen irakurtzen dizkio, eta, bueno, horrelako...
- Jaime Beraz, konpartituta duzue kontatzeko lanak.
- Isa Bai, bai, bai, txandaka.
- Jaime Ane, eta zuk zer irakurri, kontatu?
- Ane Bai, denetatik. Zaharrenari, adibidez, gehiago gustatzen zaio kontatzea, biziago egiten zaio, nik fantasia handia sortzen diot eta, istorio zaharrak eta horrela, mitologiakoak, eta horrela sartzen dizkiot pertsonaiak, eta hori berari gehiago gustatzen zaio. Enkanbio, txikienari gehiago gustatzen zaizkio irakurtzea eta marrazkiekin ikustea; beno, denetatik.
- Jaime Eta harrobia? Nondik ateratzen dituzue? Non daukazue kontu horiek eta ipuinak eta...?

- Aintzane Denetik.
- Jaime Ze, batzutan, trauma bat izan behar du horrek: gaua iritsi, ipuina eskatu, eta...
- Felix Guk, gure belaunaldikoak, guk... —gu izango gara berrogei urte ingurukoak—, nik irudipena daukat guk ez daukagula barruan herentziarik, guk aditutako kontuak txikitan, seguraski, denak ahaztu egin ditugu. Nik irudipena daukat hamarretik bederatziri gertatzen zaio horrelakoa. Eta, orduan, joan liburudendara eta erosi eta hura kontatu. Batzutan kontatu eta beste batzutan irakurri; gehienetan, kontatu oraindik, nire kasuan behintzat, ume txikia delako.
- Aintzane Bai, hori... Alde batetik, baditugu txikitan irakurri ditugun ipuinak, nik entzun gutxi entzun ditut, baina eta gero hortik egiten ditugu bertsioak ere. Gero, niri gertatzen zait, batzutan, idatzi izan ditut gauzatxo batzuk, eta, haurrak gero eskatu egiten dituzte. Ez pentsa, gero, kartan irakurtzen dute, eskatzen dute “gogoratzen zara nola irakurri zenidan hori”, eta hori, eta hamalau mila aldiz hori, eta, askotan, berri bat, ez dute berririk eskatzen, eta kontatu ditugunarekin eta irakurri dugunekin aski dute.
- Ana Eta, askotan, izaten da egunean zer gertatu zaigun; ba, horrekin ipuina osatzen duzu gauean, ez. Nik txikiari, behintzat, horrelakoak askotan.
- Jaime A, bai?
- Ana Egunean zer gertatu den, ba, asmatzen dut halako ipuin bat, eta berak galdetzen dit hori —ni naiz ama?— esaten du; bueno, ba, bai edo ez. Hori asko gustatzen zaie. Askotan, arriskua izaten da, ba, igual, amonaren etxera joaten da, eta amonak ipuin bat asmatu dio, eta hurrengo egunean “ama, kontatu egidazu hiru oiloaren ez dakit...”, eta zuk ez dakizu, “bai, atzo amonak kontatu zituen ipuin... hori kontatu egidazu, hori ez”. Nahi dute berriro ere gogoratzea zuk asmatutako ipuin hori, eta ez zara gogoratzen, ideiarik ez daukazu.
- Jaime Eta hori ezinezkoa izaten da, ez? Herenegun kontatutako eta asmatutako ipuin hori berriz gogoratzea? Beste bertsioen bat, igoal, ezta?
- Felix Gero, nik pentsatzen dut pasadizoak dituztela ipuinak bezain gustuko; beno, pasadizoak xeblebre xamarrek behar dute izan, ez joan dendara eta zer egin dugun dendan. Nire umeak, igual, esaten dit “nini batek zer egin zuen?”. Horrek esan nahi du gonbitea kontatzeko istorioren bat, pasadizoa gehiago.
- Isa Txikitako kontuak esaten dira nire etxean.
- Felix Hori esaten du, esate baterako, nik errietan egin edo ohartarazi, zer edo zer arrisku dagoela, “ez egin horrelakorik” edo “erori egingo zara haruntza igotzen baldin bazara”, eta, orduan, berak esaten du “nini batek zer egin zuen?”. Horrek esan nahi du nik kontatu behar diodala nini bat, ume bat nola igotzen eskaileran eta nola ibili zen, ez dakit, arriskupean, eta, azkenean, horrela min hartu zuen; hori ez dakit zuei...
- Ana Nire kasuan, asko gustatzen zaie nire garaiko, “nik zure adina nuenean, amonak joaten nintzen azokara”, eta nola, “eta gurdian, eta zaldian eta bestea”, horrelako eta nik nola bizi izan nuen bere adinean, ez? Hori izugarri gustatzen zaie.
- Isa Horiek bai, horiek denbora guztian, etengabe, ipuin, ipuin-kontaketa gehiago izaten da gauean oheratzean eta horrelako gauzak, baina, egia da, egunean zehar horrelako edozer gauza aprobeztatzen dute eta “kontatu egidazu...” eta gure gauzak, eta aitonarenak, bai nola gerran zer eta...
- Ana Bai, kuriositatea izaten dute gauzak jakiteko. Orduan, ba...

A fitxa

Aizak, hi, lagun txitxarra,
hori duk buru azkarra:
ni uda osoz ale biltzen ta
hi jotzen kitarra!
Nekatu nian bizkarra,
hik berriz kantu ta farra...
atzo soinua jotzen zuenak
gaur dantza beharra

B fitxa

**Erbiak arin jokotan,
irabazi du askotan,
baina dortokak ere ez daude
galtzeko asmotan.
Jokoaren kontuotan
ezin gintezke egon lotan,
harroputzaren hotsak ez dira
hartzen baliotan.**

C fitxa

Bele beltz harro hori,
zer uste zenduan?
zer uste zenduan?
ederrez ez duzula
parerik munduan?
Bakoitzari berea
jantzi ta kantuan...
Zuk krua! eta azeria
gaztarekin juan!
Ez zara harrotuko
hola hurrenguan.

IX. ERANSKINA

Alegia zaharrak

INURRIA ETA TXITXARRA (Alegiak sudur ondoan begiak. EREIN)

Udaran, arratsalde bero batez, han ari zen inurria ogi-mamiak, egur-ezpalak, zotzak, fruta-azalak eta gainerako txikikeriak biltzen. Handik bertantxe, zuhaitzen itzalpe goxoan, txitxarra kantu batean ari zen gustura.

Eta horrela, gaua pasa eta eguna etorri, txitxarra kantari eta inurria lanean gogor ari. Bero handi harekin txitxarrak lanerako gogorik ez.

Bitartean, inurria bere bihitegiak leporaino betetzen ari zen, neguko hotzaldietan ez delako bideetan ahora eramatekorik aurkitzen.

Laster joan zen uda, eta udazkena etorri. Baita, txitxarrak uste baino lehen, negua sartu ere, bere elur, haize, izotz eta guzti.

Ezin zuen txitxarrak, eginahalak eginda ere, jatekorik inon topa. Ez zuen biziari eustekorik ere. Goseak eta larri, zuzen, inurri adiskidearengana jo zuen.

— Zer nahi duk, txitxar?

— Hi, emaidak zertxobait jateko, goseak hil beharrean nabilek-eta. Baduk nire hitza, orain hik niri eman halako bi itzuliko diadala agorrila baino lehen.

Baina ez zen inurria asko fidatzen zena. Baldin gezurretan ari bazen eta emandakoa sekula itzultzen ez? Negu osorako janari hura gutzia biltzea gainera, ez zitzaion gutxi kostatzen.

— Baina zer habil jatekorik gabe? Zertan jardun duk uda osoan?

— Ba... ni... itzalean, zuhaizpetan egon nauk.

— Eta zer egiten huen han?

— Kantatu gau eta egun.

Inurri langileak hau entzutean etxeko ateak itxi zizkion eta erantsi:

— Udan kantatu baduk, egin ezak orain dantza.

*Haizak, hi, lagun txitxarra,
hori duk buru azkarra:
ni uda osoz ale biltzen ta
hi jotzen kitarra!
Nekatu nian bizkarra,
hik berriz kantu ta farra...
atzo soinua jotzen zuenak
gaur dantza beharra.*

ERBIA ETA DORTOKA (Alegiak sudur ondoan begiak. EREIN)

Goiz batez, honela esan zion dortokak erbiari:

— Egin nahi al zenuke nirekin apustu bat?

— Nahi duzun bezala, baina zertan datza?

— Begira, lasterketa bat egin genezake. Ezetz zu ni baino lehen hango zuhaitz hartara iritsi?

Artea zen, eta berrehun bat metrotara zegoen.

Erbiak sinetsi ezinik begiratzen zion dortoka adiskideari.

— Burutik egina al zaude? Ez duzu bada ikusten zuk bi urrats eman orduko nik joan-etorria egin dudala?

— Ez du axolik: apustua lehenean dago. Erbiak orduan:

— Ederki, zuk nahi duzun bezala.

Bat epaile izendatu, eta ukitu beharreko zuhaitz-enborrean jarri zen. Lasterketa bitxi hura ikustera oihaneko animalia ugari bildu zen, eta, noski, denek erbia jotzen zuten irabazletzat.

Erbiak ez zuen lau urrats besterik eman beharrik artera iristeko; dortokak, ordea, ehun emanda ere ez zukeen aski.

Kontuak kontu, epaileak irteteko keinua egin zuen bezain pronto, dortoka tipi-tapa hasi zen aurrerantz, irabazteko uste handirik gabe, egia esan.

Erbiak, berriz, jateko nahiz lo egiteko, baita kantatzeko ere aski beta izanik, utzi egin zuen dortoka izan zedila lehenengoa irteten, ohorezko iruditzen baitzizaion, gainera, zerbaiten abantaila ematea ere.

Erbia han geratu zen, beraz, lasai: tarteka, belarrari kirriski-marraska, tarteka patxadan apatx... Eta dortoka adiskidea helmuga gainean jada ikusi zuenean, riau! batean atera zitzaion atzetik, tximistaren pare.

Beranduegi, zeren bere lepoa luzatu baitzuen dortokak, eta arte-enborra ukitu erbiak baino lehen. Irabazi egin zuen apustua.

Harri eta zur zegoen erbia. Dortokak orduan:

— Hara, ikusten? Irabazi egin dizut apustua. Zertarako zure abaila hori? Ni lehenago heldu nahiz neure etxe eta guzti.

*Erbiak arin jokotan,
irabazi du askotan,
baina dortokak ere ez daude
galtzeko asmotan.
Jokoaren kontuotan
ezin gintezke egon lotan,
harroputzaren hotsak ez dira
hartzen balliotan.*

BELEA ETA AZERIA (Alegiak sudur ondoan begiak. EREIN)

Bele batek behin, zeru zabalean hegaka zebilela, artzain bati zakutoan gazta bat ikusi zion, eta poliki-poliki jaisten hasi zen jaki goxo hartaz jabetzearren.

Hamarretako garaian, eta ezer txarrik sumatu gabe, artzainak zakutotik gazta atera eta alboan utzi zuen, edateko esne-hondar baten bila zihoan bitartean.

Gazta han ikusi zuenean, belea zas! Jaitsi eta rrau! batean mokoz hartu eta inguruko zuhaitz batean jarri zen, zein jaki goxoa jan behar zuen pentsatuz pozik.

Baina, gazta-usaiak erakarri, hara non datorren zuhaitz ondora azeri maltzurra, —maltzur delako azeri oro—. Ezin baitira zuhaitzetara igo, halere nola edo hala gazta kendu nahi zion, ordea, hegaztiari, eta laster bururatu zitzaion azerikeria. Azpitik lausenguz:

— Egun on, zeruetako hegazti lirain hori! Zein ederra zaren, bele, zu! Egingo nuke, baso honetan... zera ari naiz ni "baso honetan", ezta mundu guztian ere, ez dela zu adinako, hegalaria aiosorik, zuk bezalako linaje ikusgarririk daramanik. Belea, gorespenok entzunik, geldi-geldi geratu zen.

— Ezin zitekeen zu baino hegazti ederragorik asma. Zure eitea eta planta gustagarri da, argitsua eta bikaina. Zuk behar zenuke hegaztien erregina eta ez arranoak.

Belea hantustez harrotzen hasia zen. Azeria, berriz, etengabe berriketan:

— Bele eder. Zoragarria izanen da zure ahotsa ere. Zure eztarriak sortutako doinu leun, eztiak. Puntu honetan, beleak ezin zuen gehiago. Hainbat laudorioren ondoren, harro-harro eginik eta bere ahotsaren edertasuna agertu nahirik, mokoa ireki zuen abesteko.

Baina, noski, mokoa ireki orduko, gazta erori egin zitzaion. Azeriaren hanketara etorri zen gazta, eta aguro asko harturik honela esan zuen:

— Eskerrik asko, bele jauna. Lortua dut nahi nuena. Harroxko zara nire hitzak sinesteko. Ea hurrengorako ikasten duzun.

Eta alde egin zuen, belea harrokeriaren lotsaz eta gazta gabe utziz.

*Bele beltz harro hori,
zer uste zenduan?
zer uste zenduan?
ederrez ez duzula
parerik munduan?
Bakoitzari berea
jantzi ta kantuan...
Zuk krua! eta azeria
gaztarekin juan!
ez zara harrotuko
hola hurrenguan.*

X. ERANSKINA

Zuhaitz baten historia

Ni landare gaztea nintzenean, hemen ondoan daukadan kamino hau orain baino bide lasaiagoa zen. Bizikletaren bat edo gurdiren bat besterik ez zen pasatzen.

Orain, berriz, hau zalaparta! Zabaldu egin dute pixka bat eta asfaltatu ere bai. Motorrak, autoak eta kamioiak pasatzen dira, bizikletaren bat edo beste eta hirira joan eta etorri ibiltzen den autobus hau.

Urtetan zehar lagun asko egin ditut. Ni ezin naiz hemendik mugitu, baina bertara etortzen zaizkit lagunak: txolarreak, sugandilak, euri tantak, elur malutak, kakarraldoak, urretxindorrak, marigorringoak...

Denbora luzez zakur bat etortzen zen arratsaldero-arratsaldero nire enberrari pixa egitera... Oso lagunak egin ginen eta batzuetan nire gerizpean etzaten zen.

Egun batez, zakurra nire ondoan zegoen batean, gizon bat zetorrela ikusi nuen bizkarrean aizkora hartuta. Udaletxeko langilea zen bere txapel eta uniformearekin.

Ni botatzera zetorren. Argiaren kableak jarri nahi zituzten ni bizi nintzen inguru hartan.

Laster ikusi zuen zakurrak ere uniformeaz jantzitako gizon hura eta zaunka egin zion. Zakurraren hortz zorrotzak ikusi zituenean, udaletxeko gizona beldurtu egin zen eta korrika aldegin zuen handik.

Baina handik egun batzuetara ni botatzera etorri zen berriro. Beste hiru gizonekin azaldu zen, denak uniformeaz jantzirik. Nire lagun zakurra ez zegoen han eta ez nekien zer egin. Ez neukan inoren laguntzarik.

Hasieran ez nuen ikusi, baina hantxe zegoen hodeia niri laguntzeko prest. Eta nire enborrean aizkora sartzera zihoazen unean, hodeia ireki egin zen eta euri zaparrada izugarria hasi zuen.

Bat-batean tximista bat sartu zen nire ondoan. Beldurtu egin ziren lau gizonak eta korrika aldegin zuten handik. "Horrela tximistak sartzan diren lekuan ezin daitezke indarraren kableak jarri"—esan zuten udaletxeko gizonak.

Eta geroztik bakean utzi naute. Inor ez da gehiago etorri ni botatzeko asmotan. Asko hazi naiz, indartsu nago eta lasai bizi naiz orain. Lagunak maite ditut eta beraiek ere maite naute ni.

XI. ERANSKINA

On Mielen aholkuak

Bazen lurralde haietan herritar guztiek kontalari apartatzat zuten agure maitagarri bat. On Miel zuen izena.

Behin, ipuin-kontalaria izan nahi zuen gazte bat joan zitzaion On Mielengana aholku bila:

— Kontalari agurgarri hori, zu bezalako ipuin-kontalari izateko, zer egin behar dut?

On Miel jakintsuak zera adierazi zion:

— Gazte, denok gara gai istorioak eta ipuinak kontatzeko. Kontalari izateko nahia behar duzu izan; lehen bidea nahiarena eta gozatzearena da. Horixe da lehen pausoa. Ipuinaren magia entzuleei gogo handiz igorri behar diezu.

Gazteak ondoren zera erantzun zion:

— On Miel jauna. Bide hori egina dut, eta benetan diotsut ipuin-kontalari izateko desiratzen nagoela.

On Mielek gazteari begiratu zion, eta laster ohartu zen gazteak egia esaten ziola.

— Ederki. Sinesten dizut. Baina hori ez da nahikoa. Kontalari bilakatu nahi baduzu, horra hor bigarren pausoa: ipuinak entzuten ikasi behar duzu.

Gero eta harrituago zegoen mutila. Txiki-txikitatik ipuin franko kontatzen zizkion amonak, eta, beraz, ohitura handia zuen ipuinak entzuteko, eta aparteko zaletasuna eskuratu zuen gaztarotik.

— "Behin bazen Mari Errauskin izeneko neska... eta bat-batean...". Era horretako istorioak kontatzen zizkion amonak, eta bera harri eta lur gelditzen zen halako istorioen aurrean.

— Oraindio bada zerbait aintzakotzat hartzeko —esan zion On Miel zaharrak—. Ahor: ipuinak kontatzen hastea datorkizu.

Ipuinak kontalariaren barnean bizirik dirau. Kontalariok sentitu egiten dugu ipuina, eta berarekin batera bizi. Baina, azken finean, hiru gara kontaketan: ipuina, publikoa eta kontalaria. Ez ahaztu hiruren arteko gauza dela elkarlana. Hori da hirugarren bidea.

Laster jabetu zen mutila mezu horren garrantziaz. Orduan, zera erantzun zion On Mieli:

— Horrela egiten ahaleginduko naiz.

Kontalari zaharrak ahopeka esan zion:

— Hiru bide horiek igarota, ipuin-kontalari jardungo duzu, baina laugarren bide bat dago langai: Mundu zabaleko ohitura, usadio eta ekanduen berri eduki beharko duzu, eta, zer esanik ez, gure ahozko tradizioaren bilduma eta langintza nagusiak ezagutu beharko dituzu: ipuin, kontu, mito, tradizio, ohitura, leiendak...

Gaztea artega zegoen, eta ipuin-kontalari izateko zama handiegia ez ote zen izango pentsatzen hasia zen. Kontalari trebearengana hurreratu, eta itaundu zion:

— Halaxe egingo dut maisu goren hori. Baina, bide horiek guztiak bete ondoren, kontalari bihurtuko naiz?

— Bide horiek guztiak garrantzizkoak dira, baina gogoan hartu esaldi esanguratsu hau behin betiko: "bihotza isuri, eta gainezka dagoenean mintzo da ahoa". Eraman ezazu zurekin esaldi hau, hori baituzu bide zuzena, benetako kontalaria izateko.

Honelaxe amaitu zen elkarrizketa On Miel ipuin-kontalariaren eta gaztearen artean. Gaur egun, herriz herri eta hiriz hiri entzun dezakezu gure ipuineko gaztea, kontu-kontari bideetan zehar, kontatzeko artearen funtsa ezin hobeto barneratuta, On Miel jaun gorenari esker, noski.